

BAÑIOLA'TAR ABELIN

---

# GOI ARGÍ

IRU EKITALDITAN ANTZERKIA

Bi pesta t'ardi  
— 2,50 —





R. 292a  
N.M. 2765  
R. 34730

ATV  
17.062

# BAÍOLA'TAR ABELIN

# GOI ARGÍ

IRU EKITALDITAN ANTZERKIA



DONOSTIYAN  
Joakin Baroja'ren Etxea  
1935<sup>en</sup> urtean



## ANTZEZ-LAGUNAK

JOSEFINA, 50 urte.....  
ISABEL, 29 » .....  
MATILDE, 45 » .....  
MARITXU, 25 » .....  
NESKAMEA .....  
ANTONIO, 55 urte.....  
ENRIKE, 28 » .....  
JULIAN, 35 » .....  
FAUSTINO, 50 » .....  
PEDRO, 30 » .....  
ANTONTXO, 9 urteko mutikoa

## EGILEAK

Luzarreta'tar Sorne  
Bikandi'tar Maritxu  
Areitioaurtena'tar Karmele  
Bañola'tar Maritxu  
Eizagiñe'tar Baxili  
Beorlegi'tar Gergori  
Bañola'tar Imanol  
Arizmendi'tar Nemesi  
Ugartetxea'tar Donata  
Egilegor'tar Joxeba  
Tolaretxipi'tar Iñaki

# LENENGO EKITALDIA

Jaungela ondo apaindutako bat. Atzean, ezkeñaldera ate aundi bat etxeko atze-auñeak ikusten dirala. Ezkeñetan auñe aldean gelarako ate bat. Atzerago alderdi berian, idatz mai bai. Exeri-aulki apañak ta beste edergañi asko.

## LENENGO AGEÑALDIA

ANTONIO, ENRIKE ta JULIAN (irurak lasai eserita)

ANT. ¿Ta bart?

JUL. Jator. Ango aparia, ango jolasak ango algarak ta ango..... emakumeak.

ANT. ¿Emakumeak ere bai?

JUL. Askota ez nolanaikoak. Apal ondoren zoratu ginduzten beren algara, dantza, abesti ta jolasakin. Etzuen zure semeak asti askorik galdu.

ENR. ¿Nik zer egin nikan ba?

JUL. Ezer ez. Danak gutxi itukan iretzat. Bati eldu, besteari bultza, onekin dantzatu, añekin txu-txuan baztertu, ezer ez.

ENR. Ageri askoan ta nabarmen asko ibiliak badituk ba. Emakume andaluzitar bat, Jazband jotzen zuen beltzarekin dantzatu etzan ba ¡ta nola eltzen zion!

ANT. Odolak tink egiten. Odol beltzak.

ENR. Ez dakit nik asabaren odolak, baño jan edanaren berotasunak bai. Nazkatzen nindun.

JUL. ¿Ikusi al ukan injeniero aleman'aren emaztea?

ENR. Nola ez? ¡Arek guregana etortzeko zeukan gogoa!, bañan etziokan senañak altxatzen uzten.

JUL. ¡Ura emakumea! Begi urdin; masail zuri goñiak; ezpain irigañi politak. Aingeru arpegi bat emakume soin eder batean ipiñita. Aren lepo... beso... bular...

ENR. ¡Mutil, mutil!

JUL. Oraindik begi auñean zekat ta ez dek añitzekoa, gau erdia berari begira igaro nikan ta.

ANT. ¿Ta senaña?

JUL. Zenbat eta geiago begiratzen nion emazteari, orduan ta itxusi ta zakañagoa añkitzen nuen bere senaña. ¡Ura aberia!... ¡Ta kirten añek alako emakumea eskuratu!

- ANT. ¿Zein dira?
- JUL. Ez dakit. Bañan jakin arte, ta emakume ori, al badet beñe-pin neregianatu arte, ez naiz geldituko. Shutz dubela izena badakit eta Hotel Kontinentalian daudela ere bai... gañerakoa jakingo det...
- ANT. Beti berdin.
- JUL. ¿Bai al da gai au bañan atsegiñagorik? Emakumetzat itzegin, beren asmo ta naiak somatu, berakin jolastu, berakin zoratu... ¡zer pozgañagorik!
- ANT. Gañeaz, besterenak izan ezkerro.
- JUL. Neretzako, danak dira besterenak. Nererik ez bai det.
- ENR. Ezta izango ere oraingo eran.
- JUL. Ez mutil, apaingari garestia dek emakumea. Ez diat nik ortarako.
- ENR. Ez dek beaz ik neskarik aberastuko.
- JUL. Ez detalako ik bezelako aitarik (*Antonio pañez*) ta ori apaizatarako yayua aizelarik (*Antonio'ri*) ¡lkusi bazendu zein ederki eman zuen onek meza!
- ANT. Apaldu ondoren.
- JUL. Bai. Au apaiz, Dionisio monagiño, Lukas organista, eta beste batzuek abeslari. ¡Ango zorokeria! Onek «Dominus vobiskun» aita santuak baño dotoriago esan ta...
- ENR. Ik zer dakik aita santuak nola esaten duen.
- JUL. Ik baño dotoriago ez. «Dominus vobiskun.... ta danak ekun espiritu»... ta ¡zas! kopa bat koñak... bařena.
- (*Pañez danak*)
- Gero Kirie. Asten dira Kirie, kirie kantatzen, Dionisio zintzařiak in tilin, tilin jotzen, danak orpuakin luřa juaz ta eskuakin txalo egiñaz dantzatzen ¡ta ango zalaparta!...
- Gero organistak bakarrik, berak jo, ta berak abestu, nik Kartajenan entzun nuena (*piano jotzeko antzera egiñaz*)
- A los pies de usted, Conchita  
¿cómo sigue, cómo sigue su mamá?
- ANT. ¿Elizan ori jotzen al dute?
- ENR. Onen gezuřak.
- JUL. Ez jauna, egiak. Nik neronek entzun nikan.
- ENR. Balitekek.
- JUL. ¿Ta Sevilla'ko Eliz nagusian nik entzun nuena?

ANT. ¿Zer ote da?

JUL. Aldare inguruan niokan ikusmiran, ta sermoi edo beñike-  
taori bukatu zuenian esan zikan... «la gloria eterna como  
a todos os deseo»... ta kanonigo batek erantzun ziokan  
«Gracias compare» (*danok par*) Zer uste dezute ba emen  
bezelako ilumpekuak dirala ango Eliz gizonak. Emen di-  
tuk onelako labe somoñuak.

(*Agertzen da atzean Faustino patrikatik  
zerbait ateriaz ta neskameari emanaz*).

FAUST. Tori, eman zaiozu ori ere. (*Neskamea ezkututzen da*)

JUL. Orain emen datoñen au bezelakoak.

## BIGAREN AGERALDIA

### Lengoak eta FAUSTINO

FAUST. Egun on jaunak.

DANOK Egun on.

ANT. ¿Zer ari itzan ematen?

FAUST. Ni sartzearekin batean bi lekaimetxo etoñi dituk eskera,  
ta aientzako eman zioat.

ANT. Mutil ¿oraindik zorokeri oiekin abil?

FAUST. ¿Zorokeria? ¿Gaxuentzako biltzen dabiltzan emakume  
gaxo oieri ematea zorokeria?

ANT. Eman nai badek emanzak, bañan alper oien bitartez ez.

JUL. Alpeñak eta nabañak. Bai dira, bai dira oietan edeñak.  
¡Kosme'ri entzungo bazenio!

FAUST. Kosme ta zu berdintsuak zerate ta gai oñetan gezuñak  
sortzen yayuak.

ANT. Lotsagañiskoa dek oñela somoñoz jantzi ta etxerik etxe  
ibiltzea.

FAUST. Ez ukek ori esango ire alaba balitz.

ANT. ¿Nere alaba? Lenago il, oñela ikusi baño.

FAUST. Ago ixilik, burua galtzen dek eta, gauz abezaz itz egitean.

JUL. Praile ta monjaren granorik ez balitz geiago jardunik ez.

FAUST. Ez dituzute ba oñen eñaz galduko. Jaungoikoaren gogo-  
koak bai dira.

JUL. ¡Zer Jaungoiko, ta zer sudur! Eñi jakintsu ta auñera juan  
nai duten guzietatik, bota dituzte ta.

FAUST. Banaka batzuetatik, ta ez jakintsu ta auñeratutakoenetatik. Abek pozik ateak irikitzen dizkate gizon ta emakume adoretzu oieri.

JUL. Orain dala amar gizaldi agian ondo egongo ziran bañan orain.....

FAUST. Orduan ere orain bezela, ta gero izango diran bezela, Eleizgizon oien aurka, ta goñoto bizian, agertzen ziranak asko izango ziran; ez oietan dagolako eñua, baizik beren bizikera garbi ta apalak gure nabarmenkeriak agertzen dizkigutelako.

Sinistuko genduke, ta ukataguetatik sinisten degu, siniste auekin batean, galeraziko ez balizkiguteke gure aragizko zaletasunak, doloretzko kutiziak ta añokerizko aundizkeriak.

JUL. Bai, gu gera oso... gaiztoak ta zuek oso... onak. (*Iseka*).

FAUST. Gu ere ez onak, bañan gure okeñak eta beañak ezagutzen dakigunak.

JUL. ¿Zuek ezagutu? Egundañõ ez. Ezaidazu nik atzo ikusia ta zuk ere bai, an ziañan ta, ondo dagon.

FAUST. ¿Zer?

JUL. Lanik gabe, geldirik dauden langile talde baten auñetik zijuan *praile* gazte bat, bizkañetik zintzilik atze ta auñe janariz betetako pardel aundi bat zeramala. Ikusi zutenian, langile aietako batek esan zuen. «Begira zaiozute, itxura oñetan gizona gizon dana ibili». Ta beste batek sutzu. «Guk auñai aora eramateko ogi koskor bat ez, ta au dijua janariz beteta, bera ta beste asko, lanarik egin gabe, alperkerian dauden urdalak asetzera».

ANT. Ederki esana.

FAUST. Gaizki esana.

JUL. ¿Gaizki e? ¿Zer esan bear zion ba?

FAUST. Ezer ez. Utzi gizonari bere bidean jañaitzen. Ura etzan iñortxorekin sartu, bere egipen neketsuetan zebilen.

JUL. Langile lanik gabe daudenen auñean oñela juatea, zirikatzea da.

FAUST. Tamalgaria da lan egin nai ta ez izatea, jateko lain ez otsazea, bañan geldirik dauden danak ¿langileak al dira? Len ere baziran lanik gabe bizitzen ziranak, ta esaten



zitzaien alpeñak. Orain oieri, lanik egin gabe jaraitzen duten oieri berari, esaten zaie lanik gabeak, ta kupitzen ditugu, lengo alpeñak berak izanagatik.

JUL. Nik ez nituen langile aiek ezagutu.

FAUST. Nik ere ez, erdaldunak baiziran, atzerikoak. Emengoak ez dira oraindik onela nabarmentzen.

ANT. Nik Juliani ematen ziot añazoia. Gaurko egunetan duenak ezтик nola nai agertu bear ezduenen aũean. Goñotoa sortzen dik.

FAUST. ¿Zer diok? Ire iritzi ori aũera eraman da, begira akiok zer gertatuko litzaken. Osasun gabeko matrail zurbil baten aũean ezingo ukek jañi osasuntsu musu goñi bat, argal baten aũean sendo ta bikain bat, motel baten aũean pizkoñra, trakets baten aũean liraña, beartsu baten aũean aberatsa, goñoto biziz begiratu gabe.

ENR. Uñutitxo zuaz, Faustino.

ANT. Ta ain uñuti.

JUL. Añazoia ezin arkiturik. Ori beste gai bat da.

FAUST. ¿Zer nai dezu? Gose dagonaren aũean ezingo dala jañi asetzeko daukana esatea?

JUL. Bai, praile ura bezela.

FAUST. Bañan esaidazute. ¿Nork geigo gosea ireki aziko du: ta nork zuen iritzieta, goñotua sortu aziko du; praile gizarajo añek ezkutuan zeramanakin, ala ostatu ta janetxeak erakusten dizkiguten janari edeñakin; ta salerosle guziak soma litzateken kutiziak gure begi aũean jañiakin?

ANT. Erakutsi gabe ¿nola salduko dizkitek?

FAUST. Erakutsi, ori dek, erakutsi ta ortan etziok gaitzik. Ez duenak alduenian jabetzeko asmo onak artu bear dizkik, ta bitartean iñor goñotatu gabe, utzi dijoala bakoitza bere bidean, praile ura zijuan, ta juan zan bezela, agian langile añotz aiek kutipuaz ta berazaz Jaunari añen egiñaz.

ANT. Obe zikan añen baño pardela iriki ta zeramana eman bazien.

FAUST. Etzikan berea ori egiteko. Bañan ik egin ezakek. ¿Nork galeraziko dik? Eman zak, arkituko dek nork artua, lanik ez duten edo egin nai ez duten oietan.

- ANT. Ez diat nik, ordia, beti ezpañetan Jaungoikoa erabiltzen ta alkarganako maitasuna oiek bezela erakusten.
- JUL. Zer edo zerkin estali bear dutelako, beren alpertasuna.
- FAUST. ¡Nork nori! Zuk aieri alpeña esan. Aste betean egiten duten lana zuk urte guzian egingo ez dezuta.
- JUL. Ezta egin nai ere, aien lana.
- FAUST. Gauza izan bear.
- JUL. Zure beñiketak entzuteko ez; aspertu nazu.
- FAUST. Aspertu ez, mindu. Egia samiña izan...
- JUL. ¿Samiñak zure kirtenkeriak? ba, ba, ba... Banua ez det onen auñian egon nai.
- ANT. ¡Asaē ez e!
- JUL. ¿Ez alator?
- ENR. Oraindik ez. Eguerdi aldian agertuko nak zuen artean.

## IRUGAÑEN AGEÑALDIA

ANTONIO, ENRIKE ta FAUSTINO

- FAUST. Ezertarako ez diran txotxolo abek nere onetik ateratzen naute. ¿Zer egiten du mutil onek?
- ANT. Ondo mutil alaiā da.
- FAUST. Jolaserako bakañik etoñiak bagiña ludi onetara bai, bañan geiagotarako gaude. ¿Zertatik bizi da?
- ENR. Ez dakit. Alde guzietan agertzen da, jai guzietan auñena da, nik dakidala txindi askorik ez du, bañan beti sortzen du.
- FAUST. Zeok emango diozute ta.
- ENR. Ez ez, gizonezkoak ez beñepin.
- FAUST. Orduan okerago. Ta onelakoak gizon zintzo ta bear bezelakoentzak erabiltzen dituzten jardunak.
- ENR. Al baluke ba oñek, Eliza ta Elizako gauzak, azkar ondutuko lituke.
- FAUST. Ta i oñekin. ¿Zergatik ibiltzen aiz? Ta barka nazazute galdeera. Edozeñek esango luke ni naizela etxe jabea.
- ANT. Ba itzake bezela. Aspaldian nere lagunik aundiēna aiz ta... ¿Bakañiz al aiz?
- FAUST. Ez, emaztea ta ilobarekin.
- ENR. ¿Maritxu ere bai? (*posturik*).

FAUST. Bai, bañenen dituk.

ENR. Banua, barkatu.

ANT. Ez uala onera zetoztik. (*Datozela somatuaz*)

## LAUGAĒREN AGEĒALDIA

Lengoak, JOSEFINA, MATILDE ta MARITXU

(Matilde ta Maritxu auñeratuko dira esku emenaz. Gero Maritxu Enrike'rekin juango da eskui aldera ta gañerakoak jañiko dira ezkeñetan).

MATIL. } Egun on.  
MARIT. }

ANT. Egun on Matilde... Egun on, zerutxo.

JOSEF. Añatsaldian Baionara dijoazela ta laguntzeko esatera etoñi dira.

ANT. Ongi egingo dezu.

MARIT. ¿Atzo ezkeron ondo?

ENR. Txit gaizki orain arte. (*Txit gaizki, oso nabarmen*).

MARIT. ¿Ta orain?

ENR. Txit ondo. (*Txit ondo, ere nabarmen*).

MARIT. Eñaz sendatzeko gaitza zenduen nun bait.

ENR. Zu ikusi utsak sendatzen duena. (*Eseri biak*).

MATIL. Beñogeitamar urte omen ditu zure emazteak.

ANT. Ez dakik. Ez dizkit neri beñere esaten.

JOSEF. ¿Galdetzen al diazu?

ANT. Emakumeari urteak galdetzea itzusia da.

JOSEF. Galdetu gabe ere badakizkitzu zenbat ditudan. Nun zeoñek ezkutatu nai ez dituzun.

ANT. Bai, diruak bezela. Bankoan koñituan jartzeko.

FAUST. Urteak ez, bañan urtearen buruan dirua bai, eñuz jañi dek koñituan. Gogoratzen al aiz aroztegi txiki ura jañi ukanian, bi txamponekin?

ANT. Bai eoñek emanak. Ta amaika lan egiña nak, ta amaika buñuka geroztik ere bai langileakin.

FAUST. Aspertu arte.

ANT. Aspertu arte, añazoi dek. Oñegatik ez nikan nai nere semea ni bezela langileakin ta lanakin buñukan ibiltzea,

ta sendagile egin diat, iñortzaz beartu gabe ta bere lan utsarekin bizi dedin.

FAUST. Bai, oñen sedagiletza ta batez, berdiñak dituk. Beañik ez.

JOSEF. ¿Beañak? ¡gaizki oitua! Aitak lañezez dana betea dauka. Ara alaba, ondo oitua izan añen, eusten dio lanari. Bere senañak ilian ekartzen dion diru apurtxuarekin moldatu bear du ta.

MATIL. Ta iru auñekin. Naiko lan badu.

ANT. Ez ezkontzia zuen. Gustoko aldapan, nekerik ez.

FAUST. Ondo senar ona dik ba.

ANT. Bai, bai... (*Iseka abestuaz*) Jaungoikoa... lege zaña... gora... ardo zaña...

ENR. Nere aita asi da bere suiaren kaltez itz egiten.

MARIT. Ezin ikusi du. Ta gizon zintzoa ta bear bezelakoa dalarik.  
(*Altxatzen da Josefina, gero bezteak*)

JOSEF. Ez dizutet erakutsi Andonitxok bíali didan eskutitza.

ANT. Antontxok...

JOSEF. Bai gizona bai... Antontxok. Atozte. (*danok juanaz*)

MATIL. ¿Berdin ez da ba?

ANT. Nere etxean ez da izen txororik. Anton edo Antontxo ez Andoni.

## BOSTGAÑEN AGEÑALDIA

### ENRIKE ta MARITXU

ENR. Poz aundi bat artzen det zure ondoan egon utsarekin.

MARIT. ¿Beste geiago gabe?

ENR. Ikusi utsarekin.

MARIT. Ez dakit nola etoñi naizen. Ez nuen asmorik, bañan entzun diodanian izebari zure amarengana zetoñela, utzi esku artean neukan lana, jantzi bereala, ta emen naukazu orain, Jaungoikoari eskeñak.

ENR. Jaungoikoari ez, zure izebari.

MARIT. Zu beti berdin. Jaungoikoarik ez balitz bezeia, ta gure asmo egite ta izate guziak beragandik sortuak ez balira bezela.

- ENR. Esan det, izebari eskeñak, gertaera bat gogoratuaz.
- MARIT. Izango da..
- ENR. Entzun. Mendi aldats batean zijuan gizon bat, ta alako batean oñak irist egin ta jausi da mendian bera. Etzeukan zeri eutsirik, non gelditurik, ¡galdua zan! amilka zijuan. Bañan lañi artan somatu zuen uratzen ziola soin guzia sasi batek. Miñ artu añen eutsi dio sendo ta an gelditu da. Laguntzera etoñi zaion batek dio. ¡Jaungoikoari eskeñak gaur bizi zera! ta gizaxo arek esku odolduari begiratuaz dio: Jaungoikoari ez.. sasi ari.
- MARIT. Jaungoikoak argitu, Jaungoikoak asmoa ekañi ta Jaungoikoak indañak eman ez bazizkan etzan sasiari eldu ta geldituko. Asiera, izaera ta bukaera dana beregandik bai datorkigu.
- ENR. Gaur eskertu beañean nago orduan. Zuri ere onera etortzeko asmoa berak sortuko zizulako.
- MARIT. Egia.
- ENR. Ez ordea nik ikusten ez dan Jaungoikoaren beañik izan... Nere Jaungoiko, zeru, eñegin ta jabea zu zeralako  
(limurki)
- MARIT. Etzazula ni bezelako emakume batengatik oñelako zoro-kerikik esan.
- ENR. ¿Beñiro entzun nai dituzu? (txit limurki)
- MARIT. Maitasunak itxutu egiten duela diote ta ala da.
- ENR. Itxu banego ez nituke edertasun oiek nere inguruan ikusiko.
- MARIT. Ez dituzu ikusten.
- ENR. Bañan bai somatzen.
- MARIT. Itxu-itxuan; ametsetan.
- ENR. ¡Atsegiñak amets gozo abek, ene maitea!
- MARIT. ¡Maitea!... ¿Maite al nazu?
- ENR. ¿Nola ez?
- MARIT. Maite al nazu maitasun egizkoñaz?
- ENR. Baietz uste det.
- MARIT. ¿Maitasuna zer da?
- ENR. Gaitza itzez agertzen, bañan eñeza bañenen nabaitzen..... Batzuek gizakunde zaletasun bat besterik ez dala diote.

- MARIT. Gizon ta emakumen alkarganako zaletasuna besterik ez?  
Orduan aberetxoen antzekoak gera.
- ENR. Bai, ta ez. Zaletasun oren gain gizonak asmo altxiagoak,  
ta iraunkoagoak jartzen ditulako.
- MARIT. ¿Beti?
- ENR. Geienetan. Maitasun ori sendotzeko bai dira gañera  
ondasun geiago.
- MARIT. Ez beti agertzen diranak.
- ENR. Zeronek zenion bezela itxu xamar garai oietan ibiltzen  
geralako.
- MARIT. Ta elkar ezagutzen saiatzen ez geralako. Pozgiro ibil-  
tzeagatik ez degu atsegin ez dan gauzarik ikusi nai.
- ENR. Egia. Ala ere ontasun asko eñaz ikusten dira, ta zoriontsu  
izaten laguntzen dute; bat da, osasuna.
- MARIT. Ez da iraunkoia.
- ENR. Edertasuna.
- MARIT. Gutxiago.
- ENR. Aberastasuna.
- MARIT. Askotan kaltegaria. Bear ez diran maitasunak ta griña  
txarrek eñaztutzen ditulako.
- ENR. ¿Nola sortu orduan egizko maitasuna?
- MARIT. Begira. Nik bein irakuñi nuen maitatzea zer zan, ta oso-  
osorik bete ninduen. Maitatzea da opatzea bateri nai  
ditun ontasun guziak, ta alegiñak egitea ontasun oiek  
iritxi ditzan.
- ENR. ¿Nola, nola? ez tet ongi ulertu.
- MARIT. Eñaza da. Ni zoriontsu izateko nai ditudan ontasun gu-  
ziak, zuk neri opatzia... ta...
- ENR. Opatzen dizkitzudan bezela.
- MARIT. ... itxoin... ta zuk lan ta alegiñ guziak egin bear dituzu,  
nik oso osorik ontasun oiek izan artean.
- ENR. Bigaren zati orek lanak baditu.
- MARIT. Agian aundiak, bañan bigaren au gabe auñenekoa ezer  
ez da.  
¿Zer ez besteri opa, eragozpenak, lanak eta kalteak ekar-  
tzen ezpadizkigu? Bañan lan abek gabe, maitasunarik ez  
da agertzen. Askotan gañatza izango dala, ziñesten det;

bañan maitasunak ez al ditu ba gañaztasun oiek gozatuko?

Erderazko esaera batek, ongi agertzen du ori «Obras son amores y no buenas razones». Ez ezpain ertzeko agindu eñazak, baizik lanak eta nekeak.

ENR. Onela maite banazu ¿zoriontsu ni!

MARIT. Etzaitut oraindik onela maite, bañan onela naiko nuke nik maite... ta ni maitatzea... ¿Ta zuk?

ENR. Entzunaz, zoratuta naukazu, ta eztakit zer esan, bañan geitxo ez ote da eskatzen dezuna?

MARIT. Al dana baño geigo ez.

ENR. Bañan egin leiken guzia bai, naiz bere gogoko lana izan ez.

MARIT. Maite badu, bestearen gogoa beria izango da.

ENR. ¿Ta bere kalterako balitz?

MARIT. Ez litzake orduan ontasuna izango. Ontasuna irixteko alegindu bear da, ez kalterako dana.

ENR. ¿Nork daki, askotan, ontasuna ta kaltea non dauden?

MARIT. Ondo alkartzen diraden bik obeko asma lezateke.

ENR. Nik beñepin, laguntza bearko det, ez banaiz gauza bakañik ezer egiteko.

MARIT. ¿Ta oñenbeste urteekin ori diozu! Mutil gazteari begiratzea, etzait beñere egokia iruditu. Gizon egiñakin asitzia, beldurtzen nintzan, ta zu mañ erdian zaudena itz egingo dezu mutiko baten antzera, ta zeroñen buruañren jabe ez baziña bezela?

ENR. Ez naiz ezertarako gauza. Neria, ala gurasoena, ez dakit norena dan eñua, bañan ala da.

MARIT. Ez dezazula ori esan. Gizon baten ezpañetan gaizki daude itz oiek. Danok gera gauza, gogoa jañi bear, bañan gogo sendoa.

ENR. Maitasun sutsuren batek berotzen ez banua.

MARIT. Garaiz zaude ba.

## SEIGAREN AGERALDIA

### Lenguak eta ISABEL

- ISAB. (*Sartuko da bizi*) Asketsi, galeraztera natořela badakit, bařan presa det, etxeratu beara naiz ta bereala, aurtxoak jaztera.
- MARIT. Auřera Isabel, ez dizugu zer barkaturik Txorakeri batzuek esaten ari giřan.
- ISAB. ¡Biyak gai egon!
- ENR. Agian onek jakingo du. Galde egiozu maitasuna zer dan.
- ISAB. ¿Maitasuna? Ez nuke jakingo esaten, bařan nik dakidana da, nere senar ta aurtxoan onagatik, ařastaka ibiliko nintzakela.
- MARIT. ¿Nekeak ikaratu gabe?
- ISAB. Nekeak eta lanak bizkar gařean artuta.
- MARIT. (*Enrikeri*) ¡Egizko maitasuna!
- ISAB. Enřike, zure gana nator, zure laguntza bear det aita gure alde jartzeko. (*Maritxu altxa ta juanaz*) nere gatik geldi zaitez, zure auřean berdin esango diot.
- MARIT. Ez, sendiko beřirik ez det nik zer jakiřik, bařura nua, an nabaitzen det zure mutiltxoa.
- ISAB. Bai Andoni'rekin naiz.
- ENR. Anton, badakizu aita asařetzen dala Andoni esanta.
- ISAB. Andoni ta Kepa ořentzako sugařiak dira.
- ENR. ¿Zer dakartzu?
- ISAB. Nere senařak irabazpide on bat iristeko egokiera dauka. Badakizu gizon ona ta langilea dala, ta alakotzat daukate dagon etxean, bařan ileroko alogera labuřa da, ta nik dakit zer zintzo ibili bear degun, zořik gabe auřera ateratzeko.
- ENR. ¿Zergatik ez diozu aitari dirua eskatzen?
- ISAB. Badakizu nereganako borondaterik ez duela ta gařera ez luke nere senařak txindik artuko. Auřak jazteko amak ematen dizkidan txanpon batzuek artzen ditudalako ere, asařetzen da.
- Aberatsen umeak bezela jazten omen ditugu ta ez berak, lanetik irabazten duen langileen antzera.



ENR. Ez det zure senāra ulertzen. Nik eskatzen diot ba, ta eman bearko ¿zer egingo nuke bestela?

ISAB. Bai, kutizi guztiak zuretzako dira ta zuk nai dezuna ba-  
kañik egiten du aitak, oñegatik zuregana, gaur nator. Laister da emen nere senāra, ta etoñi baño lenago aitari itz egin bear diozu ta gure alde jañi. ¿Badakizu Jauregi'ren etxea? ¿burni tratuan ibiltzen dana?

ENR. Bai. Ta uste det irabazi edeñak egiten ditula.

ISAB. Aundiak. Urte gutxitan aberastu da, ta ain aberats egon bear du nun dana utzitzeko asmoa artu duen. Bertako arazo duen batek nere senāari esan dio, ta nola eskatzen dituen beñogei mila duro.

ENR. ¿Ta ez al dute bertan daudenak artu nai?

ISAB. Pozik, bañan diru guzia erabat eskatzen du ta gizajoak ez daukate, oñegatik nere senāari itz egin diote ta nere senāak orain diru ori bear. Txit irabazbide ona da, ta guretzat gañera zerutik balertorke bezela. Nere senāak egingo du lana, gau ta egun, bear bada, ta bereala biur-tuko dizka aitari orain auñeratuko dizkigun diru oiek. ¿Zer diozu?

ENR. Neretzako artuko nukela nik zure senāak daukan lane-rako gogoia.

ISAB. ¿Zergatik etzera saiatzen?

ENR. ¿Gauza izango ote nintzake?

ISAB. Enñike, jañi zaitez nere senāarekin, artzazute biok Jau-regiren etxea.

ENR. Ez da gaizki esana, bañan lana egin bear oñek ikara sartzen dit.

ISAB. Nereak egingo du.

ENR. Eztet nai. Zure senāarentzat eskatuko diot.

ISAB. ¿Iritxiko dezu?

ENR. Baietz uste det.

ISAB. *(Bi eskuekin elduaz)* Eskañik asko. Senāarengana nua jau poza eman bear diot!

ENR. *(Irteten ikuziaz)* Anai añebak. ¡Guraso beren semeak! ¿ta nork esan? ori dan bizia ta saiatua ta ni naizen epela ta ezer eza.

## ZAZPIGAĀREN AGEĀALDIA

ENĀRIKE, ISABEL, ANTOTXU ta ANTONIO

ISAB. *(Atzetik auĀera bialduaz)* Antotxu emaiok osabari muxu bat.

ENĀ. Ator Antotxu.

ANTON. Egun on osaba.

ENĀ. *(Musutzen du, ta gero patrikatik pesta bat atera ta emanaz)* To, gorde zak ixilik.

ISAB. Ez gero ezer eman. Gaizki oitzen ari zerata.

ENĀ. Ezer eman al diot ba nik *¿Ez dek egia nik ez diatela ezer eman? (Antontxuk eskuiko beatsetan agerian pesta daukala ezetz esaten du ezkeĀeko eskuarekin)* ..... gorde zak ba mutil.....

ISAB. BeĀiz ere esango du oĀek osaba ona dala.

ENĀ. Dan bezela...

ANT. Bai, eman akiok, ez tik *nererik* artuko, gaur ere erneatu niok. JaĀi ezak ba Jesuiten *martxa* alu ori kantatzen IĀaxio... gure..

ISAB. *¿Orain ere onela al gera?*

ANT. Bai, ba, sartu etxean ta amonak esan diolako asiko den ba IĀaxio... gure...

ISAB. *¿Zer nai dezu ba aur batek abestutzea?*

ANT. Toreruen *martxa* nai baden, ori ez.

ISAB. *(auĀari esku eman ta ateriaz)* Guazen, guazen. En-  
riĀe, bakaĀik zaudete, esan orain. Agur aita.

## ZORTZIGAGĀREN AGEĀALDIA

ENĀRIKE ta ANTONIO

ENĀ. Aita, presarik ez badezu eseri zaitea. Itz egin nai dizut.

ANT. *¿Emakume gaiaz?*

ENĀ. Ez lan gaiaz.

ANT. Lan kontu ta ik, aĀitzekoa dek; entzun zagun.

ENĀ. *¿Ezagutzen al dezu Jauregi'ren etxea, burni tratuan ari-  
tzen danarena?*

- ANT. Etxea ta bera. Ori Eloñiokua dek berez. Faustino'ren oso laguna.
- ENR. Ba, utzi egin nai du. Aberastu da nonbait.
- ANT. Nork artua izango dek. Aberatsa zioz bai, seme alabarik ez dik, emaztea gaxo xamaña, ta alde egin naiko dik.
- ENR. Baliteke. Beñogei mila duroan saldu nai du.
- ANT. (*Pañez*). ¿Ta ik artu nai al dek?
- ENR. Nik ez, Pedro'k.
- ANT. (*Altxiaz*). Arentzako badek alpeñik ari aiz.
- ENR. ¿Zergatik?
- ANT. Arentzako ardipat emango ez detalako. Alaba eramatea naikoa ez duela orain nere diruak nai al dizkik?
- ENR. ¿Nola añtuko du ba bestela?
- ANT. Nai duen bezela, nere diruakin ez.
- ENR. Begira, aita, utzi zagun orain alde batera dirua, ta ikusi zagun egoki dan ala ez artzia.
- ANT. Ik gauza oietan itzik ez dakik.
- ENR. Askorik ez egia, bañan...
- ANT. Alpeñik ari aiz, nik etziyuat nere suiari ezer emango.
- ENR. Betikua... ta neri bai... dana... ta nere añebaren senañari ezer ez.
- ANT. I aiz nere izena daramana, nere ondorengoa.
- ENR. Añek ere nere izena bera darama.
- ANT. Ago ixilik, alpeñik ari aiz.

### BEDERATZIGAREN AGERALDIA

Lengoak, FAUSTINO, MATILDE, JOSEFINA ta bukaeran MARITXU

- FAUST. Antonio, agur, bagiatzik.
- ANT. Ni ere bania itxoin zak (*Ezkeretan dagon atetik juanaz*).
- ENR. Aita entzun beañ didazu. (*bere atzetik sartuaz*).
- JOSEF. Bitartean eseri.
- FAUST. ¿Beñiz? Gaur ez gera etxeratuko.
- MATIL. Etxeratziñ maia gertu egongo da, ez lañitu.
- FAUST. Badakizu ez naizela egundaño otorduz lañitzen.
- JOSEF. Nere senañari mai ona gustatzen zaio ba.
- FAUST. Nori ez. Josefina zorientsuak zerate. Zure senañak Eli-zanburu Sarako Koblakari ospetsuarekin esan lezake:

- «Badut andrea, badut semea,  
alaba ere badut nik,  
osasun ona batetik,  
ontasun aski bestetik,  
zer naiago det besterik».
- JOSEF. Bai.. bai.. ala da... (*oso oldozkor*).
- MATIL. Badiruri ezpetan esaten dezula.
- JOSEF. ¿Bai al da, ludi onetan, zorientsu oso-osorik danik?  
¿Nork kezka bat ez du?
- MATIL. ¿Bañan zuk?... (*ixil aldi bat*) ¿Osasuna agian?
- JOSEF. Ez, Jauna'ri eskeñak osasuntsua naiz.
- MATIL. ¿Zer ba?
- JOSEF. Nere semearen izaera.
- FAUST. Lan ez egite oñek badu bere kaltea.
- JOSEF. Aundia, bañan ez da ori geiena lañitzen nauena. ¡Asiko al da orain!
- MATIL. ¿Zer du? ¿Ixilpeko okeñen bat?
- JOSEF. Ez, ez, ondo agerikoa du. Ni samintzen nauena da bere Elizarako gogo txarñak.
- FAUST. ¡Aitaren semea!
- MATIL. Ta bestea ¡amaren alaba!
- JOSEF. Egia, alabak nere alde jo duen bezela, semeak aitarenera ta ori ez gertatzeko nik alegiñak egin ditudalarik. Txiki-txiki tandik ikastola onenetan sartuaz, elizara neronek eramanez, ta dana aipeñik,
- FAUST. Etxean ordea beste gauzarik ikusten, ta badakizu «zer ikusi, ura ikasi». Aitak berera dana jañia dauka ta bere semetzaz txoratu dago. Ez du bere begietatik ez bada ikusten.
- MATIL. Gure ilobak ez du lan eñaza izango bere oitura ta Kristau sinismen onetan jartzen,
- JOSEF. ¿Asmo oiek al ditu? Poztutzen naiz.
- MATIL. Uste dezu bestela oñenbeste auñeratuko zanik.
- JOSEF. Asieran, ezkongaietan, danok artzen ditugu asmo on oiek, agian gure adimenak ekartzen dizkigun eztabai gañatzak aldenteagatik; bañan gero, alkañen zaletasuna aunditzean, asmo oiek oztutzen dira, ta ikusi añen, garbi asko, senañ ez degula gure oituretarā ekañiko ez

degu utzitzen. Arkitzen ditugu ortarako ārazoi onak, edo onaren antzekoak, gure ezpa guziak uxiatzeko; gizon ona, agian edēra, asko maite gaituna, zer nai., ta atzenez lasaitzen gera oldoztuaz, ezpada ere zuzentzen, ez degula guk ēurik izango, ez degulako guk okertu.

MATIL. Bai, ala da. (*Sartzen da Maritxu. Entzuten dio Josefina'ri aūrena āriturik ta ondoren bāren-samīña agertuaz, ta ixil-ixilik eskui aldera juango da*).

JOSEF. Bañan nik orduan somatzen ez nuena, ta gazteak geranean ikusten ez deguna da, gu, alkartzearekin, ezkontzearekin, sendia izateko gaian jartzen gerala, ta emen dago nere samintasunaren itūria. Semea nerea da, nik sortua, nere senāren gandik, ta nik, Jaunaren aūrean, ¿aski izango al det senāra zuzentzeko asmaoa ba nuela esanakin āren bitartez sortutako semea Elizako legepean eramaten jakin ez badet? Gure soin asmo guziak betetzeagatik bai al degu emakumeak aūrak sortzeko eskubidea?

MATIL. (*Ixil aldi labur ta neketsu bat*). Zuk alegiñak egin dituzu Ez det uste Jaunak geigo eska lezakenik.

## AMARGĀREN AGĒRALDIA

Lengoak ANTONIO, EN̄RIKE ta PEDRO

ANT. (*Gelatik En̄rike'rekin ateriaz*). Guazen Faustino. (*En̄rike Maritxu gana*).

PED. Egun on danori.

DANOK Egun on.

PED. Egun on ama.

JOSEF. Egun on Pedro.

ANT. (*Juan naian*). Guazen, guazen.

PED. ¿Esan al diok?

EN̄R. Bai.

PED. Ta.

EN̄R. Alpērik.

PED. (*Antonio geldituaz*). Aita itz egin nai nizuke.

ANT. Orain ez, baniak.

PED. Juango zera, nik ere bereala juan bear def. Elkañekin juango gera.

ANT. Orduan bidean itz egingo diagu.

PED. Bidean ez. (*Legor*).

MARIT. (*Osabari*). Guazen gu, itz egin beara dute ta.

FAUST. Guazen bada. Antonio geldi ari, gu bagiatzik.

ANT. Ez, ez.

FAUST. Geldi ari mutil. (*Danok irten*).

## AMAİKAGAÑEN AGEÑALDIA

### ANTONIO ta PEDRO

PED. Enñike'k esan dizula badakit.

ANT. Bai.

PED. Enñike'k ez dakiena da azkenengo urteetan etxe oñek izan ditun irabaziak. Amar mila duro urteko. Beñogei mila duro eskatzen ditu, lau urtean osatuak dakaizkit. Ez det ardipat neretzako artuko. Len bezela jañaituko du nere sendiak ta urteroko irabaziak oso-osorik emango dizkitzut orain auñeratuko didazunaren alde.

ANT. Bañan zer uste dek ik. ¿Beñogei mila duro onela, nola nai ematen dirala.

PED. ¿Nola nai? ¿Or baño obeto nun jañi dirua?

ANT. ¿Ondo, ire eskuetan?

PED. (*Ezpañak estutuaz*). Nere eskuetan bai, ta baietz diot esan nezakelako. Nere izaerak, lanak ta gizontazunak ori esateko eskubidea ematen didatelako.

ANT. Oñenbestean ire izena badaukak topatuko dek dirua.

PED. ¿Etxean izan ta besteari eske asi bear det? ¿Zer esango dute guregatik?

ANT. Neri beztearen esanak etziatek ajolarik ematen.

PED. Neri bai. Aita, neregatik ez bada zeronen alaba ta bilo-bagatik egin zazu. Etzaizu damutuko. Aien onarengatik nabil. Oitua nago lanian, aunditasunerako ametsik ez det, etzait ba neri gogoña arkitzen orain daramadan bizi-kera; gogoratuaz, ordea, nere emazte, ta nere aurtxoaz, iluntzen zait adimen guzia ta sortzen zaizkit beste oldoz-

pen txar asko... Ēz dizkidazu diru oiek ukatuko, zeroñen alaba ta ilobarentzat dira ta.

ANT. Bai, bañan i bitarteko agola, ta ori eztiat nai.

PED. Arzazu bada zeoñek, ta nik lana egingo det.

ANT. Nere lan guziak utzi ditudanian, azkenengo urteak pakean bizitzeagatik uste al dek orain beñiro sartuko naizela lanetan.

PED. Lana nik egingo det.

ANT. (*Juan naian*). Alpeñik abil. Eztiat nai.

PED. ¿Ta Enñike'k nai balu?

ANT. Ura gauza ez dek.

PED. Ezkontzeko asmoetan da, ta zer edo zertan asi bearko du.

ANT. Etzakela buru austerik ibili añek egin bear dunarekin.

PED. Biyok.

ANT. Ez biyok ta ez bakañik, batere ez; utzi idazute neri pakean, buru auste ta lan beñirik ekañi gabe, ta... naikoa itz egin diagu... Baniak.

PED. Aita.

ANT. (*Juanaz*). Zer aita, ta aita ondo...

PED. ilsabel gajua! iZer egin zenduen nerekin ezkontzearekin!

## OIALA.

## BIGARÉN EKITALDIA

*Lengo jaungela bera*

### LENENGO AGERALDIA

ANTONIO, JOSEFINA ta ISABEL

*(Josefina lanian, Antonio batera ta bestera)*

- ANT. ¿Ta ori da jakin dezun guzia? Ori ta batere ez berdiñak dira.
- ISAB. Zer nai dezu bada itzik atera ezin bazaie. Alegiñak egin ditut Maritxu gandik zerbait jakiteko, bañan alpeñik. Ez dirala asañetu, onez onian atzeratu dirala, bañan betiko bukatu dutela. Ori da arengandik entzun dedan guzia. Anaierengandik beñiz, oñenbeste ere ez.
- ANT. Onela ezin jañai genezake. Zortzi egun mutilaren arpegia ikusi ezin degula, zortzi egun otordu bat alkañekin egin ez degula, zortzi egun bere gelatik atera nai ez duela, ez lagunetara juan ez kalera, ez iñora. Ez, ezin lezake oñela jañaitu... erotu bear du ta...
- JOSEF. Ez dakit ura erotuko dan, bañan zuk danok erotuko gaituzula bai. Utzi zaiozu mutilari. iñor asañetu ote da bere andregaiarekin!
- ANT. Zuk esateko ez da gauza asko. Ongi agertzen dezu semearenganako gogo txara.
- JOSEF. *(Samin)*. ¡Gogo txara! Ez ote det bada zuk aña maite. Maitatzia zuk uste dezu dala, kutitziz guzia betetzea, ta aren asmoak betetzeagatik zoro egiñik ibiltzia. Ez, atsekabe abetan ikasi egiten da, ta premiya dauka, gure semeak, buru auste batzuek erabiltzeko.
- ANT. Neskari añazoia emaiozu eta ondo egin duela nere semea utzitzea ere bai.
- JOSEF. ¿Nork elkar utzi duten badakizu?
- ANT. Ezta jakingo ere zuekin. Laguntzale onak dauzkat nik etxean. Neroken bakañik dana egin bearko detala badaikit... ¡Obe!... neroni juango naiz neskaren bila.



JOSEF. ¡Bañan gizona! ¿Egoki arkituko zenduke ori? ¿Zu neska-  
ren gana? Semeak jakingo balu, zentzungabeko zure  
asmo ori, ez lizuke irtetzen utziko.

ANT. Bere onagatik nik zer nai gauza egingo det.

JOSEF. ¡Naiz paṛagaṛi agertu!

ANT. Berdin da. Ni neskarengana juango naiz, ta onez ala  
txaṛez asi bearko du beṛiro nere semearekin.

JOSEF. Ja, ja, ja... (*Irīpar samin bat*) len esan dedana, danok zo-  
ratu bear degula, zu auṛena zerala.

ANT. ¿Ixilduko al zera?

JOSEF. Obe zenduke zuk ixildu, ta ez oṛela ari.

ANT. Ariko naiz nai dedan arte, ta egingo det nai dedana, zuk  
baño obeto betetzen dakizkidalako gurasoaren eginbea-  
ṛak.

JOSEF. Ori ere entzutekoak giñan. Guraso txartzat egiten nazu.

ISAB. Ixo ama, pakearengatik.

ANT. Orain bertan noa.

ISAB. (*Geldi naian*). Aita etzaitezela juan, alpeṛik izango da ta.

ANT. ¿Ta zer egin bear degu ba?

ISAB. Onez onian arzazu Enṛike, eta esaiozu buru auste oiek  
danak galtzeko artu ditzala beste burulan batzuek. ¿Sen-  
dagile egiña ez dago? dijuala bada gaxoetxera, beartsuak  
ikustera, zerbait egitera, tan lan oṛetan asi nai ezpadu  
artu dezala beste zerbait... agian ona izango litzake nere  
senaṛak erosi nai duen irabazbide ori... biyak lan egingo  
luteke... nere senaṛak erakutsiko lioke...

ANT. Nere semeari ire seneṛak etzion zer erakutsirik.

ISAB. Esan nai nizun, lanik ez egin oṛek, agian, neska atzeratu  
ote duen... Lanian ikusita... zer edo zertan saiatzen dala  
ikusita...

ANT. Enṛike'k ez tin lanaren beaṛik emaztea mantentzeko.

ISAB. ¿Ta janaren bila datoṛela uste dezu Maritxu?

ANT. Etzekiñat.

ISAB. (*Samin*). ¡Askan jana, aberea ukulura! Gutxizaz artzen  
dezute neskaren izaera. Mantenduko dutela, jantziko  
dutela agian, ta ez du geigo zer eskaturik. Mutilean bear  
diran gizontasunak sakon ezagutzea, asmo, oitura, sinis-  
men, izapide, sendi zaletasuna, dana jakin, ta ondoren

- égokia ala eza beretzako dala esatea, ez da neska gazte batek egin lezakena.
- ANT. Esan nai den ire anaia ez dala Maritxu'rentzako diña.
- ISAB. Ez, aita, ez tet ori esan. Enrike mutil on bat da, bañan..... berak nai duen guzia egiten utzi ezkerro. Berak nai ez duena egiteratzen danean ez dakigu zer izango dan.
- ANT. I baña obea beti. ¡Bai pozik anaitzaz gaizki itz egiten dedana!
- ISAB. Ez da egiya ta samin zait zu poztutzeko itzak eziñ esana. Egiya gañatza izan añen ¿beldurtu egingo al gera gero- nen artean azaltzea?
- ANT. Berdiñak zerate ama alabak.
- ISAB. ¿Ama on baten antza izatea kaltea al da?
- ANT. Beti zitalak neretzako.
- ISAB. Ez aita, ez oñelakorik esan. Agindu idazu... ¿Zer nai de- zu? ¿Beñero Maritxu'ren gana juatea nere anaiaren alde itz egitera?
- ANT. Bai, ori nai diñat.
- ISAB. Juango naiz ta ekañiko det.
- ANT. *(Alai)*. Egin zan ori...
- ISAB. Bañan ekañi bakañik... geigo ezingo det... Enrike'ren au- ñean jañi ta itz egin dezatela. Itzaldi oñetan adiskidetuko diran ala ez, ez dakit nik...
- ANT. Ekartzen baden antolatua zion dana... Nik eta nere semeak...
- ISAB. Aita, zuk ez.
- ANT. Ekartzan, ekartzan. *(Alabari ateraño lagunduaz. Onek irten baño lenago ama laztandu)*.

## BIGAÑEN AGEÑALDIA

ANTONIO ta JOSEFINA

- JOSEF. ¡Zein ona dan gure Isabel! ¡Ta zein gutxi maite dezun Antonio! Enrike, Enrike, dana semearentzat dezu.
- ANT. Zuk alabarentzat bezela.
- JOSEF. ¡Gajoari zer egiten diot bada nik! Bizitzeko ere laguntza- rik ez badiogu ematen.
- ANT. Eman zaiozu. Nork galerazten dizu.

JOSEF. Berak ez du ezer artu nai Pedro gandik ez bada, ta zuk...

ANT. Añi, ezer ez.

JOSEF. Ta alabari... ezta.

ANT. Berak nai zuena egin zuen, ta jañai dezala. Etziran asmo abek nere alabarentzako neukazkianak. Oñi eman genion aziera, ta ez emengo ikastetxe onenetan bakañik, baizik Prantzi ta Inglateñako berezienetan ta dana... arlote batekin ezkontzeko.

JOSEF. Bai zuk naiko zenion etxe, izen aundi bateko semerenbati eman, ongi agertzen zekienen bati, naiz ardipat berak izan ez, ta jazkera ta itxura apainpean gogo ta soin ustelduak estali.

ANT. Danetakuak dira.

JOSEF. Gure alabaren bila etoñiko zana etzan gain gañekoa izango..., ta ez bera gutxitzakotzat daukadalako bañan... gu geroni ¿zer izan gera?... ¿zer gera? (*Apalki ta eztikor*). ¿Aztu zaizkizu gure asierak?... ni neskame... zu mutil... ¿zer giñan Pedro'ren sendia baño geigo?

ANT. Nere jatoñiz ez naiz lotsatzen.

JOSEF. ¡Lotsatu! ¿Nork dio? Galandu baizik. Guk egin deguna Pedro'k egin lezake... ta guk baño eñazago... guk lagun-duta. Euskotar ona, zintzoa, sendoa, garbia, ondo aziya, ¿zer geigo bear du gure alabak sendi on bat sortzeko, aurtxo osasuntsu ta eder batzuek azitzeko?... Antonio, eskatzen dizun laguntza emaiuzu.

ANT. Enñike'ri emateko asmoa det.

JOSEF. Enñike ez da gauza.

ANT. Neronek lanean erakutsiko diot, ta Pedro'k berekin ari nai badu...

JOSEF. Pozik, ori nai du gure alabak. Besteren mendetik irten dedila. Anaiarekin txit lagun da ta, alkar ondo eramango dute.

ANT. Bai baño auñena Enñike ortaratu bear degu.

JOSEF. Berotu zaiozu gogoa. Adoretu zazu.

ANT. Bai, poztu egin bear det, ta neska etoñi bañan lenago. Bere gelara nua, zortzi egun abetan irten eztan gelara.

JOSEF. ¿Nai dezu nik ots egitea?

ANT. Obe, ia bere gela zuloatik ateratzen degun.

JOSEF. Bereala. *(Juanaz)*.

ANT. ¡Jakin al banezake neska mutil oiek zer izan duten! Utsenbat... iesango balu!... bañan musinduta jañaitzen badu alpeñik izango dira nere galdeera guziak.

## IRUGAÑEN AGEÑALDIA

ANTONIO ta ENRIKE, bukaeran JOSEFINA

ENR. ¿Zer nai nazu?

ANT. *(Altxa semearen gana jua ta oso maitaki itz egiñaz)*. Mutil... ¿ikusi alitekek ire arpegia? itxura ona artzen ari aiz!... argaldu... begiak gañondoraño sartu zaizkit... beko-  
kia zimurtu... zar itxura artu... ta dana ¿zergatik?... utsa  
gatik.. neska baten gatik... oñenbeste diran lekuan... ator,  
ator onera, ¡au al da gazte baten bizikera, etxe zuloan  
sartu ta zortzi egunean atera gabe!...

ENR. Irtetera nijuan.

ANT. ¡Beingoan! ¿Nora?... ¿kasinora?... ¿lagun artera?... ¿jaien  
batera?... ¿nora? esantzak.

ENR. Nora nai...

ANT. Ezingo aiz beti oñela egon. Zer edo zertan asi ari... zer  
edor zer egintzak.

ENR. ¿Egin? ¿Egundaño egin al det? ¿Gauza al naiz ezer  
egiteko?

ANT. Etzakela ori txantxetan ere esan.

ENR. Alper, ta alpeñikako bat naiz.

ANT. ¿Oraindik geigo?

ENR. ¡Txantxetan!... ¿Zer da nere bizikera? ¿Egundaño ezer  
gauza danik egin al det?... zertarako jaioa naizen bai al  
dakit nik.

ANT. Burua galdu dek. ¿Ire ikasketa guziak alpeñikakotzaz da-  
kaizkik?

ENR. ¡Ikasi, ta nola! Ta zertarako ikasi ikaste oien bitarten ne-  
ronen, edo beñteren ontasuna arkitzen ez badakit.

ANT. Artez ua... ori dek. Asi ari lanian. Lanak ez nekatu, bai-  
zik poztu ta alaitu egiten dik. ¡Nere gazte egunetako lan

- egiteak! Gau ta egun, ekiten niokan, neuñirik gabe, nere sendiaren beñak beti begi auñean nekaizkiela.. Asi, asi ari...
- ENR. Ez naiz gauza, gañera sendakintzan ezer ez dakit.
- ANT. Asieran besteak zekitena. Ikasiko dek; saiatu ari. ¿Nai aldeak izen aundikoen batengana juan?
- ENR. Ez...
- ANT. (*Ixil aldi bat*). ¿Ta beste lanen batean?
- ENR. ¿Zertan?
- ANT. Pedro'rentzako eskatu naken irabazbide oñetan naiko ukek.
- ENR. Ez. Berari emaiozu.
- ANT. Añi ez, iri nai badek.
- ENR. Pedro nere aldean gizona da, emaiozu.
- ANT. Ta ik... (*Enñike'k bizkañra altxiaz*). Enñike. Ez aut oñe-la ikusi nai. ¿Zer nai dek? Neskarekin beñiro asi.
- ENR. (*Bizkor*). Ez...
- ANT. ¿Ori ere, ez? (*Antonio gelditzen da ariturik. Ixil aldi labur bat*). Ua ba orduan ibilte aundi bat egitera, Prantzira, Inglateñra... Alemanira... nai dekan lekura... ua... beste luñak ikustera... beste emakumeakin emengoa aztutzera..
- ENR. Ez det nai. Trenak... Hotelak... nekeak... beti arpegi beñiak... aspergañia zait.
- ANT. ¿Zer nai dek orduan?
- ENR. Pakean utzitzea. (*Pizkor ta gogor*).
- ANT. Ta etxean baztertuta bizitzia. Nola nai dek guk ori onez eramatea.
- ENR. Ta zergatik ez. Etzaitzela nere ondotik ibili, mukitsu bat baniz bezela, utzi nazazute nai detan bizikera egiten, zaudete nigatik ardurarik gabe.
- ANT. Ez, ez.
- ENR. ¿Zergatik ez?
- JOSEF. (*Senañaren gana juanaz*). Antonio, Faustino'k zurekin itz egin nai du.
- ANT. ¿Orain?... orain ez.
- ENR. Neregatikan bai... ni kalera nua.
- ANT. Eztiat bear nikan guzia esan. Itxon zak.
- ENR. Gelan egongo naiz.

JOSEF. ¿Zer esango diot?

ANT. *(Ixil aldi bat ta gero dio Antonio'k).* Datořela. *(Josefina atzeratuko da ta eskuarekin ots egingo dio Faustino'ri).*

## LAUGAŘEN AGEŘALDIA

### ANTONIO ta FAUSTINO

FAUST. Egun on Antonio.

ANT. *(Gogo txarřez ta eseriaz).* Egun on.

FAUST. Etxetik netořek. An utzi diat ire Isabel gure Maritxu'rekin. Alegiņak egiten zizkak onera etortzeko baņan alpeřik ořegatik netořek ni... ire alaba gajua negarřez ikusiak kupituta. Maritxu'k ez tik etoři nai, ez guk galerazten diogulako. Zer izan duten guk etzekiagu, ta guk etzioagu galdetu ere. Neskak egun txarřak erabili dizkik, baņan beti bezela agertu dek gure auřean, aski dek eta, bere atsekabeak bakařik eramateko.

ANT. Axaleko miņak...

FAUST. Bazekiat egun txarřak daramazkitzutela ¿ta zergatik? semea ez dezutelako alai ikusten. Uste dek gurasoaren egitekoa dala beti semea alaitzen egotea. Latzago, latzago azi bear dituk semeak. Ikasi dezala bizitzen, agian ongi etořiko zaiok gertatua *(Antonio'k par iři bat)* ta ez uste poztutzen naizenik, nik eta nere emazteak zartada aundia artu diagu ta... ¿baņan uste dek itxurakoa dala onela ibiltzea... danak asaře onela bizitzea? Ez beti bezela jařai zagun ta lasai gaitezen... ez dek ori eriotza... *(Antonio'k ez dio erantzuten; ixil aldi luzen).* Ta orain baniak,.. barka nazak... ta agur.,.

ANT. Ao. ¿lk ezagutzen dek Jauregi, burni tratuan ibiltzen dana?

FAUST. Nola ez.

ANT. Saldu egin nai dik.

FAUST. Bai, atzo jakin diat, bere emazteak esanda.

ANT. Irabazpide polita izan bear dik. Enřike'rentzat artuko ote detan niok.

FAUST. ¡Gizona poztutzen nak! nork zekik lanean aste ořek ez ote duen osoro biurtuko... ta agian beřiro...

ANT. Ortan nebilek, bařan Enřike'k ez tik nai.

FAUST. ¡A! !Ori txařa! Ain gaizki oitua zio k...

ANT. Agian ik esanda.

FAUST. Nik, pozik bařan ¿zer nezakek?

ANT. Maritxu'ren osaba aiz... aitatzakoa ere bai... ik esanda...

FAUST. Bereala nai badek. (*Antonio'k maigaņeko zintzařia juaz*).

ANT. Jauregik ¿zergatik uzten dik?

FAUST. Aberastu dalako, ta premi geigo ez daukalako. Ondotxo eskatzen dik.

ANT. Bazekiat.

NESKAMEA Jauna.

ANT. Ots egin seņorituari.

NESKAMEA Bai jauna. (*Juan*).

ANT. Beřogei mila duro.

FAUST. Ta ez tik gutxiagoan emango, iba! iretzat ori ezer eztek.

ANT. Emen zetořek, zerbait esan akiok.

## BOSTGAŘEN AGERALDIA

ANTONIO, FAUSTINO ta ENŘIKE

(*Enřike sartu*).

FAUST. Ez det juan nai izan zuri agur bat egin gabe. Gertatua, gertatu ařen, len bezin adiskide arkituko nazu eta lengo eran jařaituko degu bi sendiak.

ENŘ. Eskařik asko.

FAUST. Ta orain, zorionak, poztutzeko bidean sartzera zuazelako. (*Enřike ařitu*). Aitak esan dit Jauregi'ren landola ero stera dijuala ta zuri ematen dizula.

ENŘ. ¿Ori esan dizu?

ANT. Bai, iretzako ero stera niak, ¿naiko dek?

FAUST. Ez dizu ezetik esango. Nork lezaizkiken onen urteak ta onelako irabazpide bat eskuetan. Amets gozoak ta zenbateraņokoak egin litezken. Bizikeraren jabe izatea, naiko diru irabaztea, iņoren beařik gabe, ta laguntzarik gabe nun nai agertzia, jez da ori pozgařia!

- ENR. Ta nor atzipetuko detan, nori salneuñi aundiagoak sartuko dizkiodan izakera guzia eramatia. Dirua nori ta nola kendu, zenbat eta zenbateraño gorde, gero, agian, etxean sortutako seme batek arunt bota dezan. (*Azkeneko itzak oso ilun*).
- ANT. Ortarako ere jaso egin bear auñena.
- ENR. Ba.
- FAUST. Batere ez naiz aritzen zuri onela entzunda; norekin zabiltzan jakitea naikoa da, egun abetan gañera, adimena ere ilunpetua daukazu. Asi zaitez lanean, ta gogoz eltzen badiozu beste erara itz egingo dezu.
- ENR. Bai, lanak uztarpetzean.
- FAUST. Lana bearekoa da. Agindu bat da.
- ENR. Bai, «kopeteko izardiaz irabazitako ogia jango dezu». Polita besteri esateko, bañan alduenak izardirik atera gabe bizi nai du.
- FAUST. Oñenbesteko izardi atera bearik ez dezu izango.
- ENR. Egiya. Nik egingo detan Janarengatik.
- ANT. Makiñatxobat egiña nak zuen ontasunari begiratuaz, ta orain ere oñengatik nebilek. ¿Erosiko al diat? ¿Esantzak?
- ENR. Nork galerazten dizu.
- ANT. Galerazi iñork ez, bañan ire gogozkoa dala entzun nai diat.
- FAUST. Bai gizona, bai.
- ANT. Iretzat orduan.
- ENR. Neretzat edo besterentzat.
- ANT. Iretzat.
- ENR. Neretzat. (*Bukatzearen amor egiñaz*).
- FAUST. Zori onak Enrike, ta iri ere bai Antonio.
- ANT. Bai, pozik artzen dizkiat.

## SEIGAREN AGERALDIA

### Lengoak eta ISABEL

ISAB. (*Atzetik oju egiñaz*). Enrike.

FAUST. Isabel ¿nere etxetik zatoz?

ISAB. Bai.



FAUST. Zure aitari esan diot zure alpeñikako lana.

ISAB. Alpeñikakoa ez, Maritxu ekañi det.

FAUST. }  
ANT. } ¿Maritxu?

ISAB. Bai Enñike'rekin itz egitera.

ANT. Eskañik asko alaba. Gaur egun alaia argitzen da. Goibel ilumpe bizian daramat aste osa, bañan zirkilu batetik izpi argi bat agertzen da.

ISAB. Ez bada tximist argia!

ANT. Guazen, orain kalera, gero jakingo den zertara nuan. Guazen Faustino.

FAUST. Agur Enñike.

## ZAZPIGAÑEN AGERALDIA

ENÑIKE ta ISABEL

ISAB. Zurekin itz egitera dator.

ENÑ. ¿Nola? ¿Betiko eten bagenituen alkarganako adiskidetasunak? ¿Aldatu da? ¿Beñiro asi nai du?

ISAB. Ez, nik beartu det, deñioñian dator.

ENÑ. Orduan eztet itz egin nai. Zein naizela usteko du onela nere etxera ekañita.

ISAB. Zuk ez diozula ots egin badaki, ni naiz beartu detana.. egokia zuretzat arkitzen detalako, ona, biotz aundikoa, isila, besteren akatsak estaltzen dakiena, nabarmentasunik ez dubena. Enñike, ez nuke besterik naiko nere koñataztat. Ura sartu bañon lenago oñegatik esan nai dizut ez daukala zuretzako goñotorik, ta zuk ere beretzako ez idukitzeko.

ENÑ. Une batean ere ez da nere biotzean bere kalterako, asmo txar bat sartu.

ISAB. Argi itz egingo dizu, ala esan dit, len oztu ta atzeratzeko izan dituzuten gai oietzaz... Badakizu bere naia... ¿ez al da zurea berdiña izango?... alkañi amor emanda ¿ez ote zerate batuko?... Enñike.. danok nai batean gaudela oldoztu zazu ta danok zuen ona nai degula... ta... banua Maritxu'ren bila. (*Eseri oso oldezkor*).



## ZORTZIGAREN AGEĀALDIA

ENĀRIKE ta MARITXU

MARIT. EnĀrike.

ENĀ. (*Altxa ta bizi bi eskuak luzatuaz*). Maritxu, eskaĀrik asko, ta barka nazazu... Lotsatuta nago zu nere etxean, ta nere auĀrean ikusita. Ez naiz ni izan beartu zaituna.

MARIT. Badakit.

ENĀ. (*Eseritzera eramanda*). BaĀan pozik nago orain, zu nere aldamenean ikusi utsarekin, juaten dira nere burutik kezka, zalantza ta naigabe guziak. Ikusten det ludia beste era batera, ez nagolako bakaĀrik... badalako norbait inguruak alaitzen ta argitzen dizkidana ta bizitzeko gogo beĀia ekartzen didana.

MARIT. ĀEnĀrike!

ENĀ. Zure ondoan izan nai det, zurekin, alai ala asaĀe, adis-kide ala muturka, izketan, jardunian, baĀan zurekin, beti zurekin. Zu gabe bizitzeĀo gogorik ez daukat.

(*Atzeneko itzak ilun*).

MARIT. Ikaratzen nazu, EnĀrike.

ENĀ. Egiya esaten dizut. Zoratzeko zorain egun abek igaro ditut ta beĀiro ortaratu bear badet... izertarako bizi!

MARIT. Era oĀetan ez da gaztearen alkartea artu bear. Ezta jolasean ere egiya, ez bai dira jolasak betiko alkaĀekin lotu ta sendi bat sortzea. Garai au da, ta oĀetarako dira gai daudenenaren ibiĀerak, alkar ezagutzeko garaia, ez txoro-txoro, pozik, alai ta arinki, bi usoren antzera, egun guzian alkar limurtzen egoteko.

ENĀ. ĀOri bada bizitzea!...

MARIT. Mariposaren antzera,

ENĀ. ĀZer dio?

MARIT. EnĀrike, ez gera auĀak. Gure sasoian ezin gindezke onela ibiĀi txoro-txoro, geroko asmo geigo gabe. Gaizki bukatuko genduke.

ENĀ. ĀE!

MARIT. Gaizki esan nai det, ezingo giĀakelako atzeratu ondotxo auĀeratu ezkero, ta onek bildurt/en nau.

ENĀ. Ez nazu maite!. (*Samin*).

- MARIT. Etzaitut oraindik maite nai, ortarako nere biotzari gogor egin bear badiot ere.
- ENR. ¿Ain gaiztotzat naukazu?
- MARIT. Ez, Enrike. Beste edozein neskak ez lituke nere buruausteak erabiliko, ta nere kezkarri ez lioke par besterik egingo, bañan sinismen egizkoa daukat, Jaunari eskeñak ta Onen naiak garbi ikusten ditut. Ni sendi bat sortzera juateko naiko det nere senara, nere antzera, Jaungoiko zale izatea, ta, Enrike, zu etzera..
- ENR. Nik ez dizut galeraziko nai dituzun elizkizun guziak egiten.
- MARIT. Bañan zu etzera juango.
- ENR. Ni... ez...
- MARIT. Enrike!
- ENR. ¿Ta zer dio? ¡Sinistu! Nik ere sinisten nuen, edo sinisten nuela uste nuen, txikitan... amak ala nai zuelako.. Erakutsi ziran Jaungoiko, trakets bat, aitaren egiten etzuten aurak kosketan botatzen zituena; gezurak esateagatik bekatxoak atera azitzen zituena...
- MARIT. Ez da ori Jaungoikoa..
- ENR. ...ta beti nondik eta nola gaitz eta miñak gureganatuko zituan ibiltzen zana... Ontasunak beriz... nik ez det ikusi iñori ekartzen.
- MARIT. Gure griñak ta oitura txarrek kentzeko esaten zizkiguten esakerak dirala oiek bakadizu zuk. Jaungoikoa beste gauzarik dala ere bai.
- ENR. ¿Jaunak nai ez padu, ez dala ezer gertatzen esaten ez da ba?
- MARIT. Ta ala da. Jaunaren aunditasuna ta erukia nun nai agertzen da, naiz zuek ikusi, nai ez.
- ENR. Zuk ikustearekin neretzako aski da. Zu zorientsu zera zure sinismenekin, utzi nazu ni sinismenik gabe, edo oldoztu zazu baditudala, ta zuk bezin sutsuak, ta jarai zagun.
- MARIT. ¡Ezin!
- ENR. Nere ama zu bezelakotxia da, ta ¿ez al da zorientsua?
- MARIT. Ez.
- ENR. ¿Nola?

- MARIT. Biotz bañenen kezka gañatzak ditu.
- ENR. ¿Aita gandik?
- MARIT. Ta zu gandik.
- ENR. Eraman ezin litekena da ori. ¿Galerazten al diogu, guk, nai duen bezela ta nai duen aña elizan ta elizakoakin ibiltzen? ¿Zer eskubide erakutsi lezake gure eginpenetan sartzeko?
- MARIT. Senañaren, ta batez ere semearen gain ez eskubide utsa baizik beaña. Berak sortua zera; berea zera.
- ENR. Ez bere magalpean beti egoteko. Bizi bear det, neri datorkitan bizikeraz, ta ortarako azke naiz. ¿Gizonaren eskubideak nork laburtu?
- MARIT. ¿Ta Goiñaunaren eskubideak?
- ENR. Ez ditut ezagutzen.
- MARIT. ¿Ta aren aginduak?
- ENR. ¿Zertarako bete?
- MARIT. ¿Etzaitu ikaratzen?
- ENR. Zenaiak, keñadak, egundañño iristen ez diranak.
- MARIT. Eskaintzen dizu bizi ilezkor zoriontsua edo ikaragañizko txaña.
- ENR. Aski det emengo bizikera ona.
- MARIT. Nere nai guziak artara zuzentzen ditut nik.
- ENR. Ta aruntz, eriotzaren aruntz izango danakin nai nazu orain apaiz gonapetu, ezereztu ta txetu.
- MARIT. Betiko atsegiña irabazi bear da, ta ortarako lanak badira, bañan lan abek ez dute gizona txetzen, baizik aunditzen.
- ENR. Elizkizun ta aziera txañak okertzen dizkitzute adimena-  
ren argitasunak ta sortzen dezute eramanezin liteken  
bizikera ospela.
- MARIT. Egizkoak dira.
- ENR. Gezuñez sortuak dirala nago.
- MARIT. Ez dezu sinisten (*samin*).
- ENR. Eztet sinistu nai... (*legor*). (*Isil aldi luze bat*).
- MARIT. Ez gera ulertzen.
- ENR. Ez.
- MARIT. ...orduan.
- ENR. ...orduan.
- MARIT. (*Altzi*az). Bukatu degu.

- ENR. Bukatu degu (*naigabetuaz*).  
MARIT. (*Biurtu ta poliki-poliki irtenaz*). Agur.  
ENR. Agur. (*Juten ikusi ta gero etzango da eserlekuan burua esku arten jausiaz*).

## BEDERATZIGAREN AGEĀALDIA

ENRIKE bakaĀrik

Eten da gure alkartea... bigaĀren aldiz eten, ta oraingoan betiko. Amaitu da dana gure aĀtean. Nere asmoak, nere itxaropenak, batez ere nere inguruan ikusi dedanean, aundiak ziran, zernai bere alde egiteko gertu negon, ta gero, jardunean berotuaz zeta gogoĀari ekin diogunean, ez amor apur bat emateagatik danak ukatu ditut. ¡Zipotza izan ni ta nerekoia, iĀoren aĀazoietara etortzeko!... ¡Bapo! ¡Gizon gelditu aiz EnĀrike! Andre batek ez au menderatu, baĀan ezta ik ere ireganatu, ta bera gabe ez aiz biziko...

Nai detan guzia egiten oitua ta nere nai aundienak jaĀi ditudan naitasunean eramane det jipoirik aundiena.

¡Guk gizonak, nola nai ibiltzen omen ditugu emakumeak!

¡Nolakoak ezik! Maritxu bezelakoak ez.

¡Zein sakon begiratzen duen! ¡Zein garbi ikusten duen!

GezuĀa nola esan begi aien argitasunakin nere baĀen guzia ikusten bazun!...

Ta orain ¿zer diok? ¿zer esan bear diok gurasoari, ire aĀebari?... (*Ikaratu*) ...ez det iĀor ikusi nai... iĀorekin itz egin nai... ¿nora juan? ¿zer egin?...

## AMARGAĀREN AGEĀALDIA

ENRIKE ta JULIAN

JUL. ¡Kaxo EnĀrike! Galdetu gabe ta baimenarik gabe netoĀek. Eskatu banikan bazekiat zer erantzungo ukan ta.. ez aola...

Mutil, urte bete badek ez autela ikusi.

ENR. ¡GezuĀa!

- JUL. Urte bete ez bañon... aste bete bai.
- ENR. ¿Ta zer bear dek?
- JUL. Ire arpegiya ikusi, ta i alaitu. Mutil neska baten-gatik i aon eran. Ori ez bezelako neskak ugari arkituko dizkiagu... nai dekanean.
- ENR. Maritxu'ren kaltez itz egitera etoři baaiz, bauake... ara or atea.
- JUL. Piper miñ ao.
- ENR. Ta i beřitsu.
- JUL. Beti bezela. Zer uste dek, i bezela jařiko naizela muxin-duta, kixkurtuta, prejituta, neska...
- ENR. ¿Zer?...
- JUL. Neska... neska ezer ez, neska baten-gatik... Lagun guziak jardunean ari dituk ta i aietara eramatea etoři nak.
- ENR. Ez nak juango.
- JUL. ¿Ez aizela juango? ¿Ta zergatik ez?
- ENR. Nai ez detalako.
- JUL. Jaři zaik zeta...
- ENR. Nere zeta ta iri beřiketa. ¿Zertara ator? ¿Zer nai dek?
- JUL. Zerbait esan, bañan arpegi ori alaitzean.
- ENR. Orduan bauake.
- JUL. I gabe ez. Ire bila netořek. Guazemak. Egun edeřa igaro beařean giotzik... (*Oso limuřki*).  
Lagun onaz beti gogoratzenak ni... Biařitz'ara juan bear diagu... Kosme'ren beribilean...
- ENR. Ez.
- JUL. Bukatzen utzi nazak. Kosme, i, ni, ta laugařen...
- ENR. Zuen antzeko aluen bat.
- JUL. ¿Bai zera?... (*Ixilka bezela*).  
Injeniero alemandar ařen andre ura.
- ENR. ¿Atxitu dezute?
- JUL. Kosta ta, bañan gaur gurekin dek. Senařa mina batzuek ikustera juan dek eta gaur gurekin zetořek. Lagun ona ez naizela esan nazak, itzaz ni gogoratu nak.
- ENR. Ez nak juango. Gizon oři egin nai diozutena bilaukeri bat dek,
- JUL. ¡Oi!... iri burua nastu ditek, ¿Noiz ezkeru sartu zaizkik ezpa oiek?

- ENR. Etzekiat, bañan ala dek.
- JUL. ¡Iriak egin dik! Batek egin dikana aztutzeko zazpi mila erabili bear ta...
- ENR. Utzi nazak, utzi nazak ařen.
- JUL. Ez... Injenieroen emakume eder ura dek... musu goři.. bular bete...
- ENR. Ao ixilik, zeři bat aiz i.
- JUL. Kosme... i... ni...
- ENR. Aski dekala,.. ua etoři aizen lekutik.
- JUL. ¿Bakařik?
- ENR. Bakařik. Ez nak geigo zuengana juango.
- JUL. Ara or *xantua*.
- ENR. Ez beñepin i bezin alua,
- JUL. Luisetan sartu ari... an izango dituk lagun onak... Etzaiz gaizki egongo lepotik zinta urdiña zintzilik dekala.
- ENR. ¡Petrala aiz!
- JUL. Ta i txotxolua; baniak (*juateko jira emanaz*).  
Dominus vobiskun... vobiskun... i, vobiskun...  
(*Enřike'k inguruan daukan zerbait bota nai dio*).

## AMAIKAGAŘEN AGEŘALDIA

### ENRİKE bakařik

¡Astunegia da au! ¡Nik eraman ezin añakoa! ¿Ta zer gertatzen zaiten, neronek ere badakit? Julian'ek ařituta entzuten zidan, par zeri-on, ta nola ez. ¡Ni aien lizunke-  
rizko zaletasunak itsusitzen! ¿Ta zer izan naiz ba ni?  
Ongose ta zuzentasun auek ¿nondik sortu zaizkit neri?  
Erotu beařean nago!...  
Galdu det nere izate guzia, alaitzen nindun andregaiia,  
ez bere ekandu onari jařaitzeařen.  
...Galdu ditut lagunak, ita ondo galduak daude! ez beren  
oitura lasaietan geigo kutsutzeagatik, ta orain... ¿zer  
gelditzen zait?... ¿zer egin nezake nere bizikera samin ta  
atsekabe onetan... (*entzuten du bařenen izketan*) ¿aita?  
(*atzeratu ta entzunaz*) bai, ta pozik dator... (*Lari*) ¡A!

erosi dula Jauregi'ren lantola... (*auñeratuaz ta samin*)  
...ori gelditzen zait... lana... lanean asi beara... ta ortarako  
bizi... (*Asiko da sotinka... datorkio asmo bat... oldozten*  
*jartzen da, ikara erakusten du, begiak zabalduaz... onela*  
*jarraitzen du astitxo batean ta bat batean erabaki sendoa*  
*artu balu bezela dio).*

Obe... zertarako bizi... (*juaten da irtetera... begiratzen du*  
*ezkeretata bizi bizi juanten da eskuitera, bere gela aldera)*

## AMABIGAREN AGEÑALDIA

ANTONIO ta JOSEFINA

JOSEF. (*Enñike juaten ikusi ta gero biak sartuaz*).

JOSEF. Enñike.

ANT. Utzi, gero ots egingo diogu. Alaitu, alaitu Joxepa.  
Iluntasunak badijuaz... argiya badator... poztu, poztu...

JOSEF. Zu onela ikustearekin poztua nago. ¿Eñaz egin dezute  
beaz?

ANT. Bereala bukatu degu. ¡Gizon prestua Jauregi! Beñogei  
mila duro; etzuen ardipat gutxiago nai. ¡Balio ditu! Ian  
asko egiten dan etxea da. Idatzi degu bear dan agiria.  
(*Erakutsiaz*) utzi dizkat ezagungaiz bost mila duro,  
ilabeteren buruan gañeakoak ordaintzeko, ta nai degu-  
nean jabetzera juateko entzunaz irten naiz pozik, ikusten  
detalako gure Enñike rentzat auñerapen ona ta eñaza.

JOSEF. Poztutzen naiz Antonio, batez ere gure semea lanean  
ikustearekin. Ezer ez egin oñek kalteak besterik ekartzen  
ez dizkiote gazteari. Gaurko egunean, guk, gurasoak,  
zerekin bizia utziagatik, irabazten ez badute danak  
galtzeko bidean jartzen dira. Gutxik dakite irabazten,  
banakak gordetzen, geienak galtzen.

ANT. Bai, ala da.

JOSEF. Ala ere zu ziñan ba beñere lanean jari nai etzenuena.

ANT. Gaztea dan bitartean bizikera eñaza eman naian, gure  
gaztetasun garatza gogoratuaz.

JOSEF. Obe da gañatz azi ta ez bera. Gañatz ta latz azi danak  
eragozpenari gogor egiten badaki, bañan berak...

(*Entzungo da tiro bat*).



¿Zer da ori? (*Irtengo da oso lañi*).

ANT. Utsa. Antontxu'ren trakeskerien bat.

(*Eskuan daukan idaztia maian gordiaz*).

Ori baño gaizkio azitako aurik.

(*Entzungo da kañaxi aundi bat*).

¿Zer da? ¿Emaztearen oiua? (*bat batera atzera biurtuaz*).

Enñike... Enñike...

JOSEF. (*Agertuko da puñukatua ta sutik ezin egonaz luñeratuko da*).

¡Enñike'k... bere burua il du!...

ANT. ¿Enñike'k?... ¡Argitasuna! itximistaren argitasuna zan!...  
(*Etzanaz eserlekuan*).

## OIALA

## IRUGAĪREN EKITALDIA

*Lengo jaungela bera. Orman zintzilik Enriķe'ren argazki bat. Mai gañean beste bat.*

### LENENGO AGEĀALDIA

JOSEFINA ta ANTONIO (*Danok beltzez jantziak*)

JOSEF. Īlen atzena da, ta badakizu gaur bukatzen dala Jauregi'ren landola erosteko eguna. (*Oso zakar*).

ANT. Badakit, ĳta zer?

JOSEF. Juateko, erabakitzeko ta bukatzeko. Ez dituzu beñepin, bost mila duro alpeĀrik galdu naiko.

ANT. ĳBost mila duro! Zertzait neri bost mila duroengatik semerik ez badet. ĳNorentzat nituen beretzat ezik? (*Eskuan Enriķe'ren argazkia artuaz*).

JOSEF. Alaba ere badegu.

ANT. Bañan semerik ez, Enriķe, Enriķe nai det nik.

JOSEF. ĳBetiko leloa!

ANT. Betiko leloa bai. Ura zalako, ta ura dalako, oraindik ere, nere bizi guzia. Ezin badet soñez nere ondoan iduki, irudiz, asmoz ta gogoz beti nerekin egongo da.

JOSEF. Badirudi, bai, gañerako guziak il gerala... ta ez ura.

ANT. Neretzako bai.

JOSEF. EskarĀrik asko. ĳA Gizarajoa!

ANT. Ez ni kupitu.

JOSEF. AĀzoi dezu. KupigaĀrigoak gaude gañeakoak, zuk egu-nero erabiltzen gaituzun bezela.

ANT. Irabazitakoa... ĳPoztu egin bazerate Enriķe juanakin!

JOSEF. ĳZer diozu gizona? ĳAma bati ori esan! Gau ta egun negaĀa begietan ekartzen didan semeagatik ĳardurarik ez detala! ĳpoztu egin naizela, bere eriotz talmagaĀi oĀretzaz! Antonio, neuĀri gabeko atsekabe onek itxutua zauzka Utzi ditzagun alkarganako susmo txar auek. Bizi gaitezen aldegun ondoena, ta alkar eramana, gelditzen diradenentzat.

- ANT. Bai, Pedro ta bere semeentzat. Oiek buru auste aundia ematen dizute.
- JOSEF. ¿Isabel'en sendia ez daba? ¿Gure ondorengoak ez dira ba?
- ANT. Ez, nere ondorengoa ta oñekoa Enrike zan... ta da... (*ixil aldia*).
- JOSEF. Ilaren atzena dala esan dizut.
- ANT. Badakitela erantzun dizut.
- JOSEF. Zer egin bear dezun jakin nai det.
- ANT. Nai detana egingo det.
- JOSEF. ¿Zer da ori?
- ANT. Jakingo ez dezuna.
- JOSEF. Emaztea naiz ta jakiteko eskubidea daukat. Zu aña naiz etxe onetan.
- ANT. (*Oso zakar*). ¿Zu ni aña?... ¿zuk neri agindu?... Enrike'ren onagatik ezer egingo etzendukena, etxe onetan negaia ta atsekabea sartu dan ezkerro pozik zaudena.  
(*Emaztegajuak ezetz esango dio danari*).
- JOSEF. Ez... ez...
- ANT. ...¿zuk orain neri agindu?... ¿ta zer?... Pedro ta bere enda madarikatuari laguntzeko.
- JOSEF. Ixo, ixo gizona!
- ANT. Ixo, ixo orain zuk nai dezun guzia esan dezunean.
- JOSEF. Ixo, entzungo dute ta?
- ANT. Entzun dezatela... entzuten badaude...
- JOSEF. Nik entzutea naikoa da lotsaz betetzeko.
- ANT. ¿Lotsa? Baluteke bai.
- JOSEF. Neri nai dezun guzia esatea naikoa ez da la, besteari ere bai.
- ANT. Danari.
- JOSEF. Emen daukazu il guzian zure alaba gajua, bere etxea utzi ta nola guri on egin asmatu ezin duela, ta ordaintzat... lotsik ez duela diozu.
- ANT. Nere onarengatik ez dago, berea gatik baizik.
- JOSEF. Esker txarekoa zera.
- ANT. Ta zu beti bezela zitala.
- JOSEF. Zuri ona nola egin bizi danari izitala!
- ANT. Nola ni erneatuko nauen dabilenari. ¡zitala!

JOSEF. Ikusia dago. Ezin liteke zurekin bizi. Ezin asmatu degu zure naia.

ANT. Nai ez dezutelako.

JOSEF. ¿Nai ez beaz?

ANT. Nai ez, ta utzi nazazu pakean, zuaz emendik, ta betiko juaten bazera obe.

JOSEF. ¿Etxetik botatzen nazu?

ANT. Onela ez tet geiago zure marmarik entzungo.

JOSEF. *(Entzun dunaz ariturik aldi batean oldozkor).*

Ondo da... ori ere egingo det ba; ...etzaitut geigo erneatuko... juango naiz.

ANT. Obe.

JOSEF. Bai, obe izango da. Damagun il onen antzera ezin jarai genezake. Egunero asarea, egunero buñuka, geiegia da... Gaur bertan irtengo naiz... ta zu, ni gabe obeto bazera...

ANT. Izango naizen bezela.

JOSEF. Ori naiko det... ondo da...

*(Juanteakoan agertu dirq atean Isabel ta Pedro. Entzun dute, samin daude ta Isabel uegañez ama laztantzera.)*

## BIGAREN AGEALDIA

Lengoak, ISABEL, PEDRO ta NESKAMEA

ISAB. ¡Ama! ¡Ama gajua! *(Laztazduaz).*

JOSEF. ¡Isabel, nere Isabel!

PED. Aita... *(Kementsu aita gana junaz).*

ANT. Ez nak ni ire aita... nere semia Enrike ukan, ta... Enrike dek,, i ez.

*(Ori esanaz juango da bere gelara ezkeñero atetik).*

ISAB. Guazen ama, guazen etxe onetatik.

JOSEF. Bai, guazen.

PED. Guazen gure etxera. An beñepin pakea izango degu.

JOSEF. Pakea arkitzeko premia daukat.

NESK. Etxekoandrea...

JOSEF. ¿Zer nai dezu? *(naigabe aundiz).*

NESK. Don Faustino da.

JOSEF. ¿Nor nai du?

NESK. Ez du esan.

JOSEF. Ni ez nago ba iñoren auñean jartzeko.

ISAB. Ez ama, guazen gu. Pedro geldituko da, ia zer nai duen.  
(*Juaten dira biak*).

PED. ¡Gajuak! (*Juaten ikusi ondoren neskameari*). Datoñela.

NESK. Ondo da.

## IRUGAÑEN AGEÑALDIA

PEDRO ta FAUSTINO

FAUST. Egun on, Pedro.

PED. Egun on, Faustino.

FAUST. ¿Nola zerate?

PED. Gaizki... egunetik egunera okeñago, ¡au ez da bizitzea!  
Edozeñek esango luke nere aitagiñeba ez dala poz-  
tutzen negañez danak jañi artean. ¡Bi emakumeañi oñek  
ematen dien nekea! Neri beñiz zer esanik ez... eskeñak  
eztiotela nik jaramonik egiten, bañan onela ezin gin-  
dezke izan.

Nere emazte gaxua urtu da, ama, zer esanik ez, ta nere  
etxea agindu ta zuzentzeko iñor ez dakala, goiaz bera  
dana dabil.

FAUST. Gogoñra gerta zaio ere Antonio'ri.  
¡Bere seme kutun ura galdu!

PED. Ez du etsi nai. Enñike oraindikan ere nai du. Or dabil  
beti Enñike'ren galdezka, Enñike,tzaz itz egiten, Enñike  
arkitu nairik. Jañi dizkigu Enñike'ren irudiak alde guzie-  
tan, ormetan, mai ta txoko guzietan... badabilzki  
patrikan... otorduetan maian oraindik bere lekua gor-  
detzen zaiola esanakin, dana ikusia dago.

FAUST. Itxura gabeko gauzak dira oiek. Etsi bear luke. ¡Iñor iñ  
ote da! Ta auek dira gizon gordiñak, auek geroko ezereñ  
belduñik ez dutenak, ta auek eriotz batek puñukatu ta  
buruik altxa eziñik gelditzen diranak.

PED. Badakizu, nola... eztuten ezer sinisten.

FAUST. Sinistuko ez baluteke ez lirake oñela izango.  
Ukatzen eñaza da, bañan ez bañendik ixil-ixilik datozen  
galdera setatsuari erantzuten.

PED. Ez bai dira ixiltzen.

FAUST. ¿Antonio nun da?

PED. Or bañenan. Enrike'ren gelan agian, geienetan an da ta.

FAUST. Ez dakit ots egin, edo dakartena zuri esan.

PED. Entzungo dizut ta nik egin nezakena bada, agindu.

FAUST. Eskarrik asko. Jauregi'k bialtzen nau.

PED. Badakit zertara.

FAUST. Ila gaur bukatzen da, ta, nola iru idatzi egiñaren ez dion erantzun, jakin nai luke zer asmo daukan.

PED. Guri ez digu esan nai.

FAUST. ¿Galdetu diozute?

PED. Egun auetan guzietan aitatu diogu. Aiztian, azkenengo bere emaztearekin izan duen erietan, oregatik zan.

FAUST. ¿Ta zer dio?

PED. Enrike'rentzat ez bada, beste inorentzat ez dula erosiko.

FAUST. Zorokeria da ori.

PED. Ez degu ba oretatik ateratzen.

FAUST. ¿Ta agiritzat jaritako bost mila duroak?

PED. Geiago balio zituela bere semeak, eta galdu duela.

FAUST. Eman deizula zuri bere eskubidea, ta zuk osa zazu gañeako dirua. ¿Ez ote dezu arkituko?

PED. Orain eraz. Nereak bakañik dira bere ondorengoak. Bañan etxean izan da, besteri eskatzea ez da itxura onekoa. Esaiozu zuk. Zuri entzungo dizu. Zurekin jardunean ariaren, geienetan zure esana egiten du. Itz egiozu.

FAUST. Ez nekan gogo aundirik. Gertaera talalgañi ura ezkerro ez det ikusi. ¡Nere iloba nola tartean baizan! ¡Ta gajuak egun onak daramazki! Etzuen senartzako nai, gaur ere, uste det, ez lukela naiko, bañan ala ere, bizia opa lioke berari ontasuna ekartzearen.

PED. Bai, Isabel'ek ala esan dit.

FAUST. Len baño adizkideagoak dirala uste det bi lagunak...

PED. ¿Nai dezu aitari ots egitea?

FAUST. Bai, ots egiozu. Noiz edo noiz ikusi beara naiz ta gaur izango da.

## LAUGAĀREN AGEĀRALDIA

Lengoak eta ISABEL

ISAB. Barkatu Faustino. Beste baten auĀera ez nintzan etoĀiko, baĀan zuretzako ez dago etxe onetan ixilpeko gauzarik. Kepa, ama badijoa... Eztu geigo une batean ere egon nai, baĀan... eztu gure etxera etoĀi nai... bakaĀik jua nai du.

PED. ĀNora?

ISAB. Ez dakit. Gure etxera etoĀi ezkerro goĀoto aundiagoa artuko liokela bere senaĀak, ta ez berari bakaĀik, baizik guri ere bai, ta ez du iĀola ere besteren kaltegaĀi izan nai.

FAUST. ĀTamalgaĀia! baĀan aĀazoi du.

PED. (*Bizi*). ĀTa zer zaigu gizon oĀen goĀoto ta asmo txaĀa gatik? ĀLen ere ez al da al duen kalte guzia egiten saiatzen? ĀZer geiago lezake?

ISAB. Badakizu amak ez dula ezer egingo senaĀaren kaltez.

FAUST. ĀJoxepa gajua! Ori bere senaĀarentzat ta danentzat izan danarekin...

ISAB. Zabiltz bada azkar, badijoa ta.

FAUST. Ez du jua bear. Bere etxetik ez du irten bear, iĀola ere. (*Pedro'ri*).

Ots egiozu aitari, ta etoĀi bitartean amaren gana noa.

ISAB. Guazen, bai. (*Irurok atze aldera. Agertuko da Antonio atean*). Ez dezu zer ots egiĀik. Ara non dan.

FAUST. Zuazte ama gana, ta esaiozute bereala naizela berarekin. (*Irten Pedro ta Isabel. Antonio dijuazenari begira; gero Faustino ri jaramonik egin gabe sartuta eseri*).

## BOSTGAĀREN AGEĀRALDIA

FAUSTINO ta ANTONIO

FAUST. ĀAntonio!

ANT. ĀZer? (*Oso labur*).

FAUST. Irenegana etoñi nak.

ANT. Neregana, ta or abil etxean diran guziakin batera ta bestera.

FAUST. Lengo eran.

ANT. Etziok orain lengo konturik.

FAUST. Ikusten diat. Zeon alkarganako maitasuna ta atsegiña itzali dala. Arpegi ilunak ta negārez estaliak ikusten dizkiat.

ANT. Ekañi nazak Enñike ta danok alaituko gaituk.

FAUST. ¡Enñike!... (*Eziñeko gauza dala agertu naian*).

ANT. Enñike bai, Enñike, ura zalako etxe guzia altxa ta poz-tutzen zuena.

FAUST. (*Añituta*). ¿Zer egiten zikan ārek bere etxearen alde? ¿Bere senide ta gurasoen alde?

ANT. Ura ukan nere bizia.

FAUST. ¡A! Ori beste gauzik dek. Aren begietatik bakañik ikusten ukala, egia dek... ōregatik ōren gaizki azi ukan.

ANT. Gezūra diok!

FAUST. (*Poliki, poliki*). Gaizki āzi... barka nazak... ta aur gaizki azi batek geienetan, gurasoaren ondamena ekartzen dik... iri, negāra ekañi dik.

(*Andoni'k ezpañak estutu ta burua makurtu*).

ANT. ¡Aundia!

FAUST. ¿Zer egiten dek alaitzeko?... Begira zak ire ingurura ta ikusiko dek emazte on bat, iñok ezdun bezelako emazte bat, iri on nola egin asmatu eziñik; alaba bat, gutxi diraden bezelakoa, bere gaztetasuna aztu, ta bere senar ta aurtxoak naikoa ez ditula, beti bere aita ta amaren begietara begira, zeon nairik txikienak, asmatu naian, bereala betetzeko.

Ta i... entzungō, zeta txārakin, goikoz bera gauza danak artzen ditukala, emakume ērukañi oieri une bateko pakea ematen ez diotekala.

ANT. ¿Nik e?... Berak bai ez bazekitek ni sutuzeko zer egin.

FAUST. Uste txārak.

ANT. ¿Usteak? Bazirudik Enñike'ren eriotzak poztu egin ditula.

FAUST. Etzakela ori esan.

ANT. Zergatik ari dituk ba beti aztuarazi naian.



- FAUST. Añazoi ditek. Egongo aiz ba beti, ta beti, jardun berakin burua zoratzen. Egun talmagañi ura aldentzen ari dek. Berak ekañitako oñaze zoñotza barentzen ari dek. Ez dezagun ba, gertatutakoa beti, ta beti, gogoraturik, zauria beñitu.
- Iñork aña miñ nik artu nikan...
- ANT. Esanak.
- FAUST. Nik, eta nere etxeko guziak.
- ANT. Bai, Maritxu'k.
- FAUST. Maritxu'k bai. Ta agian i baño geigo alegintzen dek Enñike'ren on biñ.
- ANT. Il da gero... salda bero.
- FAUST. Il da gero. Jaungoikoaren eskuetara juañ daneañ ta bere gogoa...
- ANT. (*Asa're altxiaz*). ¿Jaungoikoa? ¡jixo!... Ez nakela aitatu. Baldin bada, ta esaten dezuten almena badu, petral ona, seme bakaña aita bateri kentzen diona. ¡Atzapañetan baneuka!
- FAUST. Bereetan, bai, bagiotzik gu... ta ire semea... ta ondo irtentzeko emakumeak, batez ere gure etxeetan diran emakumeak, egokiak dituk. Biartu, ta biurtuko ditek, esate batera, Jaunaren asma bera ire semearen alde.
- ANT. Beñiketak!
- FAUST. Iretzat bai. (*Ixil aldi bat*).
- ANT. ¿Ta ontara etoñi al aiz?
- FAUST. Ontara, ta beste geiagora ere bai... Jauregi'k iru idatzi egin dizkik.
- ANT. Ta etzioat erantzun.
- FAUST. Gaur dek azkenengo eguna. (*Dana eztiro ta geldi*).
- ANT. Bazekiat.
- FAUST. Zai zioak.
- ANT. Alpeñik, ez nak juango.
- FAUST. ¿Ta jañitakoa?... ¿Galdutzat eman nai dek?
- ANT. Enñike ekartzen ez banak bai.
- FAUST. Enñike ezik geigo ere badituk. Pedro gizon on bat dek. Erosi akiok.
- ANT. Ez.
- FAUST. Eman akiok ba ik daukaken eskubidea.

ANT. ¿Ta gañeako dirua?

FAUST. Arkituko dik.

ANT. *(Sutsu ta asare bizia agertuaz)*. ¡Len ez ta orain bai!  
¡Sumatzen diat! Enrike il, ta berak bakañik dituk nere  
ondorengoak... ¡Esan nazak ez dirala ura ilarekin poztu!

FAUST. Orain ere txañera jo dek. ¿Lotsatzen ez aiz ire odolekoen  
kaltez beti onela itz egiten? Pedro alde batera utzita,  
bear dan gizona izanañen, ez dakak Isabel, ire odolekoa,  
ta ez dizkik bere sabelean sortu, ta bere bulañez azi, ire  
bilobak diran bere iru aurtxoak? Ara or nun ditukan ire  
ondorengoak, ire etxe au alaitu lezatekenak, ire zartza-  
roa poztu lezatekenak... ez akiotekela etxeko ta biotzeko  
ateak itxi.

*(Antonio oldezkor ta itun eseritzen da. Faustino  
juaten da, ta atsean norbaiteri etortzeko esaten  
dio eskuakin. Agertzen da Antontxu, Faustino'k  
ixilik itz egiten dio ta juaten da. Antontxu poliki-  
poliki, etoriko da aitonaren auñera. Onak nabai-  
tzaren dunean hõrbait, burua altxatzen du, ta  
biloba ikusirik zoro antzera, bañan gozoki eldu  
ta ekiten dio.*

## SEIGAREN AGEÑALDIA

### ANTONIO ta ANTONTXU

ANT. ¡Antontxu!... ¡Antontxu!... inere biloba maitea! Atorkit...  
Atorkit... *(belaun gañean jañiaz ta musutuaz)*.  
Mutil edeñra aiz... Begiak, Enrike'k bezin edeñak dituk...  
ilia ere bai,,,; ik maiteko nak asko, asko... Enrike maite  
ukan bezela... esan nazak...

ANTON. Bai, aitona.

ANT. Bai, ta nik ere bai... biyok izango gaituk laguntxoak... nik  
esango dizkiat kontutxoak... ik ere bai... neri... iriak  
Antontxu... *(Begira-begira egon ta bat-batean)*. Enrike  
non dan ik jakingo dek...

ANTON. Bai aitona.

ANT. ¿Nun? *(Lei aundiarekin)*.

ANTON. Zeruan.

ANT. ¿Nola dakik, aingerutxoa?

ANTON. Onak zerura juaten diralako, ta osaba oso ona zan.

ANT. (*Mañuaka negañezko poza dariola*). ¡A! Antontxu, Antontxu, i aiz egia esaten dekana, ik nere biotzeko zauria sendatzen diak. Antontxu nereaa... ik maite nak.

## ZAZPIGAREN AGEÑALDIA

Lengoak eta ISABEL

ISAB. (*Oso lañi ta atzetik oju egiñaz*).

Andoni, ator onera... ¿aitonari zer egin diok?

(*Isabel'ek atera nai dio auñā, bañan aitonak euzten dio*)

ANT. ¿Zer, atera egin nai den? Nere biloba, nere odola daraman biloba, atera egin nai den? ¡Ez diñat emango!

ISAB. (*Ezin ulerturik*). Ez aita... zuk nai badezu zurekin izango da... Okeñen bat egin zizula uste nuen.

ANT. Okeñā ez, biotza alaitu zian. Enñike non dan bazekin.

ISAB. ¿Enñike? (*lañi*).

ANT. Bai.

ISAB. (*Ikaraz, jakin naian*). ¿Non da biotza?

ANTON. Zeruan.

ANT. ¿Entzun den? (*alai*).

ISAB. (*Alaituaz*). Bai aita, ta ez badago ere ez du luzaro jañaituko dagon lekuan. Alegintzen gera, eztala añas galdu ziur bagera. Añen eriotz lañiko itz labur aiek, siñestun batenak ziran. Oñegatik ez degu geiegi estutu bear. Bizi geradenok alegindu gaitezen aren alde, bañan baita ere gu geroni obeto izaten. Ondo bizi gindezke.

ANT. Ni Antontxu'rekin. Onera ekañi bear den.

ISAB. Ta ni berarekin, ez baida egoki ama bati auñā kentzea.

ANT. Ez diñat kenduko. Iretzako lekua izango den etxean.

ISAB. (*Poza ta itxuropenez betiaz*). ¿Ta nere senañarentzat?... ¿ta beste nere aurtxoentzat?... Esaidazu baietz aita... ain ona zeran aita... izerdi ta neke guziak gugatik, pozik, artzen zenituen aita... ni ainbeste maite ninduzun, aita... neretzat, dana gutxi arkitzen zenuen, aita, naiz orain

gogor ta zeken agertu, bañenen izan dezun, ta daukazun maitasuna ezkutatu naian... (*Oso lastanki*).

Zure gogozko etzan ezkontzarekin naigabetu zindutan, ezereztu nitulako zuk nere maitasunean zerabiltzkizun asmo ta ametsak, bañan... zoriontsu nai ba ninduzun zoriontsu naiz... Senar on bat det. ¡Bazenekizu zenbat maite nauen, ta zenbat maite dituen bere aurtxoak!...

ANT. ¿Ta ni? (*Seken*).

ISAB. Etzaitu esagutzen. Beti gogor artu dezu, ta nola sinistuko du guraso biotz aundiko bat zerala?

ANT. Gogoña izan naiz, egia.

ISAB. Ekar zazu onera, agertu zaitetz len ziñan bezela, ta ikusiko dezu Pedro nor dan.

(*Atzeneko itz auek esanaz belaunikatu edo eroriko da aitaren oñetan bere eskuari eutziatz*).

Nere senařarekin... nere aurtxoarekin... nere amarekin... nere aitarekin... danok... batean... ¿ezin gindezke bizi?

ANT. Altxa Isabel, altxa... Ezan akion Pedro'ri etortzeko.

(*Isabel altxa ta poz aundiz atzera juan da ots egiten du*).

ISAB. Pedro... ama... atozte, atozte...

(*Bitarte onetan Antonio maira juan ta aterako du Jauregi'rekin egin-tzuen eros ageria*).

## ZORTZIGAREN AGERALDIA

Lengoak, JOSEFINA, PEDRO ta FAUSTINO

ISAB. Pedro, aitak zurekin itz egin nai du.

PED. Aita.

ANT. To, Pedro. Ua Jauregi'ren gana ta esan akiok bere landola iretzako dala. Idazkia ire izenean egiteko...

PED. Eskañik asko, aita.

ANT. Ta diruakin juango naizela.

PED. Bereala ordainduko dizkitzut.

ANT. Ez, irea dek... ire emaztearena... ire aurtxoena... emen biziko geran guziena.

FAUST. Ezpaiñ estu ta esku itxi agertzen itzan, ire bañen ona ezkutatu naian. Batak eta besteak iriki itzik; etxeko ateak zabaldu, ta datozela auen aurtxoak iri ta pañez, zarataz ta oiuz dana betetzera.

ISAB. *(Eskuitan Isabel ta Pedro, erdian Faustino, ezkeretan Antonio ta Josefina. Antontxu Antoniok daka).* ¡Bai dana alaitzera!

PED. ¡Amets dagit!

ISAB. Orain ezagutuko dezu nor dan gure aita.

JOSEF. Antonio... zina, gaur beñero agertzen zera.

ANT. Joxepa. ¿Uste dezu beñiztu genezakela gure puñukatutako bizi zoriontsua?

JOSEF. Eramankoragoa egin, bai beñepin.

FAUST. Zoriontsua ere bai.

ANT. Gaur alaitu nazute. Ilunpean neukan oroia uraturik argi beñia datorkit bañen dana argitzera....


¡Ez al da len bezela adur txarekua izango!

*(Ikara agertuaz).*

ISAB. Ez aita, oraingoa «Goi argia da».

A M A Y A





# Egileak len argitaldutako antzerkiak



Meza berriya

Aldiz aldi

Gai dagonaren indarra

Lagun txar bat



Ekitalde batean

Iru ekitalditan

